

pertsonaia

aitor gorosabel. su ta gar

GEU

2,40 €

2006ko maiatza

161

gaia

neff zinemaldia

gizartea

eliza. felix placer

hezkuntza

lanbide heziketa euskaraz

arabako bazterrak

zuia ezagutuz



langraizko espetxea heriotz zigorra ziega barruan



CEGASA

Energiaren indar bizia

BELAUNALDI BERRI BATENTZAKO PILA BERRIAK


Ekipo elektroniko berriek energia berria behar dute eskaintzen duten korrante intentsitate altuko premiei erantzuna emango diena.

Cegasa-k erronka berri honi emandako erantzuna **CEGASA EVOLUTION** da, goragoko potentzia garatzen duen prestazio askotako pila alkalinoen belaunaldi berria, azken belaunaldiko aparatuentzako energia iturri egokiena.



CEGASA INTERNACIONAL, S.A. Artapadura, 11 - 01013 GASTEIZ
Bezeraentzako arreta telef.: 902 32 22 32 www.cegasa.com

SUMARIOA161



zeregin 4
maiatzeko agenda

iritzia 7
hizkuntz eskubideak

geupertsonaia 8
aitor gorosabel, su ta gar-en abeslaria

euskaltasunean. gasteiz 11
imanol molinillo

kaletik / idazleenzutabea 12
udaberria / iban zaldua

orribatean 13
alboka eguna. ekainak 3. otazu

geugaia 15
gasteizko neff zinemaldia, europar zine berria

batbitan 18
langraizko espetxea

artetxokoa 20
eorann taldea

haur & gazte literatura 22
txabi arnal

lauhitzetan 23
18/98 auziarren epaiketa:
tortura eta bortxaketa testigantza

batbitan 24
felix placerren azken liburua

bidaia / errezeta 26
irudietan barna / patata beteak

arababixotzian / historiazutabea 27
cristina fernandez / erlantz urtasun


batbitan 28
lanbide heziketa euskaraz,
gasteizko diocesan-etan

umorea 30
iñigo sarasola

orribatean 31
ostalaritza euskaraz, gamarrako eskolan

arabako bazterrak 32
zuiako koadrila

gutun irekia 34
arabako emakumeen asanblada



GEU

www.geugasteiz.com | geu@geugasteiz.com | geugaste@grn.es

GEU aldizkaria | GEU Elkartaren ekimenez sortua (1992) | Geu aldizkari taldeak egina, bideratua eta kudeatua | **erredakzioa:** Pedro Asua kalea, 2 - 3.a. 01008 Gasteiz | **tfnoa. eta faxa:** 945 22 21 53 | **e-mail:** geugaste@grn.es | www.geugasteiz.com | **zuzendaria:** estibx breñas glz. de zarate | **aldizkari batzordea:** josune veleiz de mendizabal, edorta sanz, edurne begiristain, estibx breñas eta david alvez | **kazetariak:** josune veleiz de mendizabal, edurne begiristain, saioa fdz. de arangiz eta maite lekue | **azaleko argazkia:** edorta sanz | **argazkiak:** edorta sanz | **bestelako irudiak-bilaketa:** estibx breñas glz. de zarate, david alvez | **testuen zuzenketa-orraketa-osaketak:** estibx breñas glz. de zarate | **itzulpenak:** edurne begiristain, estibx breñas, aztiri | **maketa:** dalvez-komunikazioa / patirke sanz laguardia | **umorea:** iñigo sarasola | **kolaboratzaileak ale honetan:** iban zaldua, txabi arnal, erlantz urtasun, cristina fernandez, ehe, arabako emakumeen asanblada eta gamarrako ostalaritza eskola. | **publizitatea:** aldizkari batzordea eta edurne begiristain | **sustapen-harpidetza saila:** edurne begiristain, estibx breñas glz. de zarate | **inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) | **lg:** VI-582/92 | **issn:** 1133-0988 | **Frankeo Itundua** 48/27 zenb. | aldizkari hau paper berziklatuaz egina dago | GEU aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:



1

LEHIAKETA: AURREKU ARA-BARRA & DANTZA ASKE ARABARRA
>estibaliz santutegian,
12:00etan
14. edizioa
629441344 (marian)
www.arabadantzarienbiltzarra.com

4

GASTEIZKO IRAKURLE KLUBA / 06
>liburua: xabier montoia, 'hilen bizimoldea' trilogia: hezur gabeko hilak, blackout eta elektrika, susa 1999 eta 2004
dinamizatzailea: iban zaldia
hikaateneoan (pintore kalea, 13), 20:00etan
>>maiatzaren 25ean mintzagai izango den liburua:
jaroslaw iwaszkiewicz, wilkoko andereñoak, alberdania-elkar 2004 (1933)
geu elkartearen ekimenez
www.geugasteiz.com



6

EUSKAL HERRIEN ARTEKO III. JOKO TOPAKETAK
>gasteizko matxete plazan,
17:00etan
antolatzailea: xiba
xibaaraba@euskalerria.org /
roberto: 658750998



6

EUSKARAZKO LANTEGIAK: IPUINAK IDAZTEN IKASI (HASTAPE-NAK)
>maiatzak 6, 13, 19 eta 26
izena emate bidezko ikastaroa
gasteizko aldabe gizarte-etxean, 20.30
www.gauekoak.com / gauekoak@gauekoak.com
kolore biziak elkarte: 945204009 (9:00-13:00 - igor uriarte)

7

ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETA
>finalerdiak:
maiatzaren 7an, aguraingo harresi aretoan, 19:00etan
maiatzaren 13an, dulantziko aretoan, 19:00etan
>finala
maiatzaren 27an (lekua eta ordua konfirmatzeko)
araba@bertsozale.com / www.bertsozale.com

11

KONTZERTUA: TOMAS SAN MIGUEL + TXALAPARTA
>gasteizko hegoalde gizarte etxeko antzokian, 20:30ean
www.gauekoak.com / gauekoak@gauekoak.com / kolore biziak elkarte: 945204009 (9:00-13:00 - igor uriarte)
geu elkartearen laguntza

13

ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETA
>finalerdia: maiatzaren 13an
dulantziko aretoan, 19:00etan
>finala: maiatzaren 27an (lekua eta ordua konfirmatzeko)
araba@bertsozale.com /
www.bertsozale.com

13

TXOTXONGILOAK: KONTU KONTA ZAN
(azika txotxongilo konpainia)
>4 urtetik gora. familiarentzako antzerkia. 'ikuskizuna lakuan'; federico garcia lorca antzokia - lakua gizarte etxean (gasteiz). 12.00etan. sarrera: 5 euro
kultur plangintza eta programazio zerbitzuak / www.vitoria-gasteiz.org/teatros

17

IPUIN KONTALARIA: KOLDO AMESTOY
>'harriola marriola' helduentzako ipuina
gasteizko aldabe gizarte etxean, 18:00etan. 2 euro (sarrerak ika-ko euskaltegietan)
KULTURika '06
www.ikastari.com

17

HITZALDI SORTA: EUSKAL NARRATIBA GAUR, LITERATURA ETA GATAZKA
>aingeru epaltza: gure kontu triste hori
gasteizko filologia, geografia eta historia fakultateko gradu aretoan, 10.30ean
eratzaila: jon kortazar
www.eusko-ikaskuntza.org

19

KONTZERTUA: OZEN TALDEA (ARRASATE)
>bagaren (gasteiz-aitzotile kalea, 62), 22:00etan

19

FELIX UGARTE 14. ITZULPEN-LEHIAKETA
itzulpenak aurkezteko epea: maiatzak 19
ikasle unibertsitarietara zuzendua
kulturcampus (ehu)-arabako campusa
www.vc.ehu.es

19

FANTASIAZKO IPUIN-LABURREN 14 UNIBERTSITATE LEHIAKETA
lanak aurkezteko epea: maiatzak 19
jende orori zuzendua
kulturcampus (ehu)-arabako campusa
www.vc.ehu.es

21

MENDI IRTEERA: GEUREKIN MENDIRA / 06
> flor, umión (1434 m)
egun osoko ibilaldia
irteera guztiak: loaina plazatik (gasteiz) / goizeko 9etan
arduraduna: Kike 945140158
geu elkartearen mendia taldea
www.geugasteiz.com

21

IKUSKIZUN MUSIKALA: 'PUB IBILTARIA'
>udalaren musika banda & oskorri.
familia osoarentzat, principal antzokian, 12:30ean
*kontzertu honetarako gonbidapenak: gasteizko principal antzokian eta musiketxean 15 egun aurretik
kultur plangintza eta programazio zerbitzuak / www.vitoria-gasteiz.org/teatros

25

GASTEIZKO IRAKURLE KLUBA / 06
>liburua: jaroslaw iwaszkiewicz, wilkoko andereñoak, alberdania-elkar 2004 (1933)
dinamizatzailea: iban zaldia
hikaateneoan (pintore kalea, 13), 20:00etan
geu elkartearen ekimenez
www.geugasteiz.com

25

18. RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA-2006
lanak aurkezteko epea: maiatzak 25
atalak: 18. rikardo arregi kazetari saria / kazetari berria saria / epaimahaiaren sari berezia
andoaingo udala

26

BERTSO SAIOA
>bertsolari berriak & bertsolari betetakoak
bagaren (gasteiz-aitzotile kalea, 62), 22:30ean

27

ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETA
>finala: maiatzaren 27an (lekua eta ordua konfirmatzeko)
araba@bertsozale.com /
www.bertsozale.com

30

KULTUR ERROTA: IPUINKONTALARIA-AINHOA IRAZU
>gasteizko parral tabernan, 20:30ean
geu elkartearen ekimenez
www.geugasteiz.com

26

KONTZERTUA: ASIER SERRANO
>gasteizko aldabe gizarte etxeko antzokian, 20:30ean
www.gauekoak.com / gauekoak@gauekoak.com / kolore biziak elkarte: 945204009 (9:00-13:00 - igor uriarte)
geu elkartearen laguntza

xiba, 3. topaketak, gasteizen, maiatzaren 6an

xiba, euskal herrien arteko 3. joko topaketak gasteizen izango dira maiatzaren 6an, arratsaldeko Setan matxete plazan. frogak honako hauek dira: xiba, harri jasotzea, dantza, lastoa, ingudea, lokotxak, txingak, galotxa (bretoia), zakua, trontza, toka eta sokatira, eta hauetaz gain bi berri daude aurtun, mus txapelketa eta sorpresa. talde parte-hartzaileak 12 lagunez osaturik daude, 6 neska eta 6 mutil. giro ezin hobea espero dute antolatzaileek eta parte-hartzaileek.
xibaaraba@euskalerria.org

alboka v. topaketa herrikoia, otazun, ekainaren 3an

otazu herrian (araba) izango da aurtun bosgarrenez antolaturiko alboka topaketa herrikoia. sorginetxe eta otaka kultur elkarteek antolatuta, ekainaren 3an goizeko hamaiketatik aurrera alboka izango da protagonista, baina ez ordea, bertako musika-tresna bakarra.

egitaraua: ikus 12. orr.



tomas san miguel + txalaparta

madrilen bizi da, nahiz eta izatez gasteiztarra den, 1953an jaioa. pianojolea, konpositorea, esperientzia zabaleko soinu-jolea, beti soinu-
-aukera berrien bila dabil tomas san miguel, jazzetik world music-eraino dihoazen estiloak lantzen dituelarik. bere cda lezao tomas san miguel txalapartarekin, estatu espainiarrean eta e.e.b.b.etan aintzat hartua izan zen, non prentsa espezializatuak (billboard, rolling stone, spotlight) honako titularrak eskaini zizkion: "benetan desberdina da, lan bikaina, misterio eta xarma gogorazten duten doinuak, musika liluragarri eta oparoa, meditazio harrigarriak, fusio harrigarri eta berezia...". disko honekin aurkezpen bira bat egin zen antzoki desberdinetatik, 50 musikari baino gehiagorekin -hauen artean, samaniego abesbatza eta kepa junkera soinu-jolea-



oraingo honetan, tomas san miguelek 'dan-txa' lana hurbiltzen digu, 'lezao'rekin (1994) hasi eta 'ten' (1998) lanarekin jarraipena eman zitzaion trilogiaren hirugarren zatia, hain zuzen. txalapartaren inguruko bere proiektuaren behin betiko amaiera ez da, baina bai puntu eta bereizketa bat. musikari iraunkor eta geldiezina, hemendik epe laburrera jorge pardo saxofonistarekin beste disko bat argitaratuko du 'vida en catedrales' proiektuaren barnean. badabil ere binakako lan bat grabatzeko asmotan almeriako gitarrajole batekin.



asier serrano


asier serranoren 'hoteleko kantuak' azken lanak udaberriko denboraldiko euskarazko ikuskizunen programazioa itxiko du. poeta, abeslari eta idazlea, euskaldun artista emankorrenetarikoa dugu asier serrano. hau ez da bere behin betiko diskoa. asierri bidean dagoenaren esperientzia aitortu behar zaio. harri biratzaile bat da asier. bere kantak behin-behinekotasunari omenaldi bat dira, bizitza etengabe bizi-klapen bat dela ezagutzen duenaren defentsa sutua.

'hoteleko kantuak' lanaren abesti bakoitza emergentziatzko poxpolu bat da. poxpolua piztu eta zigarroari su ematen diogu hoteleko gelan; autoafirmazio keinu bat da: familiarra den usain baten bitartez,

beldurra eta usain arrotzak gela ezezagun batetik uxatzeko desioa.

*ikuskizun hauek antolatuko geu elkartearen kolaborazioa ezinbestekoa izan da

harremanetarako euskarazko ekimenen sustatzailea: igor uriarte
gauekoak@gaukoak.com - 945 204008 (9.00-13.00)
www.gaukoak.com



GASTEIZEN AISIA ETA KULTURAN LIDER DEN ENPRESAK

LIBURUDENDA KUDEATZAILEA BEHAR DU

Enpresa politika jarraituz liburu dendaren kudeaketa aurrera eramateko.

ESKAKIZUNAK:

- Goi mailako ikasketak.
- Euskara ezinbestekoa.
- Euskal kulturarekiko hurbiltasuna.
- Liburu eta musika munduaren ezagutza.
- 3 urteko esperientzia gestio lanetan.
- Komertzial dohainak.
- Informatika erabiltzaile moduan.
- Jendetasuna.
- Gasteiz edo inguruetan bizitzea.

Bere sektorean lider den enpresa sendo eta profesional batean parte hartzeko aukera eskaintzen da. Soldata bakoitzaren balioaren arabera izango da. Diskrezioa prozesu osoan zehar mantenduko da.

Interesatuok, bidali zuen curriculum (2422-LG) erreferentzia adierazita ondorengo helbide honetara:
CRH. Foru Kalea, 23-1º 01005 Gasteiz, Crh@consultores.com.

Jasotako informazio guztia abenduaren 13ko 15/199 datu pertsonalen babesaren inguruko legearen arabera erabili da.

geu elkarteak maiztean www.geugasteiz.com

maiatzak 4

GASTEIZKO IRAKURLE KLUBA / 06

>liburua: xabier montoia, 'hilen bizimoldea' trilogia: hezur gabeko hilak, blackout eta elektrika, susa 1999 eta 2004

dinamizatzailea: iban zaldia hikaatenean (pintore kalea, 13), 20:00etan



GASTEIZKO
IRAKURLE
KLUBA

maiatzak 25

GASTEIZKO IRAKURLE KLUBA / 06

>liburua: jaroslaw iwaszkiewicz, wilkoko andereñoak, alberdania-elkar 2004 [1933]

dinamizatzailea: iban zaldia hikaatenean (pintore kalea, 13), 20:00etan

>>ekainaren 29an mintzagai izango den liburua:

jon alonso, 'agur, darwin, eta beste arkeologia batzuk', pamiela-2001

maiatzak 21

MENDI IRTEERA: GEUREKIN MENDIRA / 06

> flor, umión (1434 m) egun osoko ibilaldia


irteera guztiak: lovaina plazatik (gasteiz), goizeko 9etan.

arduraduna: kike 945140158
geu elkarteak mendira taldea

maiatzak 30

KULTUR ERROTA: IPUINKONTALARIA-AINHUA IRAZU

>gasteizko parral tabernan, 20:30ean
geu elkartearen ekimenez
www.geugasteiz.com



laguntzailea:

Obra Social

Caja Vital Vital Kutxa

Gizarte-Ekintza

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

[euskal herrian euskaraz]

Hizkuntz eskubideen egoera Euskal Herrian, 2005ean

HIZKUNTZ ESKUBIDEEN URRAKETA GEHIAGORIK EZ!

Hizkuntz Eskubideen Behatokiak urteko txostena aurkeztu berri du. Sortu zenetik Behatokiak aurkezten duen bosgarren txostena da hau. Ibilbide honek, aukera ematen digu aurkezten zaizkigun datuak perspektiba handiagoarekin aztertzeo eta ondorio batzuk ateratzeko.

Lehenik eta behin, urtez urte herritarren aldetik hainbeste dei jasotzeak, argi uzten du euskalgintzak behin eta berriz salatu duen egoera; hau da, euskaldunok hizkuntz eskubideak urratuak ditugula eta lurralde berezikeriarik gabe, gainera. Herritarra, hizkuntz eskubideen subjektu denaren gero eta kontzienteagoa dela ere adierazten du kexa kopuru handiak. Euskalgintza eta herri mugimenduak urte luzeetan egindako kontzientziazio lana emaitzak ematen ari delako adierazle dela esan genezake.

Aipatu behar dugu, salatzen diren hizkuntz eskubideen urraketa hauek ez dira gertaera isolatuak; hau da, ez dira kasualitatez gertatzen direnak. Hauen erroa edo jatorria zapalkuntza ahalbidetzen duen egoeran dago. Euskaldunon eskubideak atzerrian, Euskal Herria zapaltzen duten bi estatuek erabakitakoak dira. Euskararen normalizazioa eta euskaldunon eskubideak bermatzea helburu ez dituzten legeetan oinarritzen direnak dira. Hori da funtsean dagoen arazoa. Eta hori gaingitu bitartean, gure legeak Euskal Herrian erabakitzen ez ditugun bitartean, ez da posible izango osoki euskaraz bizitzea. Hala ere, horrek ez du esan nahi bitarte horretan ezer egin behar ez dugunik, kontrakoa baizik. Orain arte bezala, gure eskubideak aldarrikatzen

eta borrokatzen jarraitu behar dugu.

Txostenaren aurkezpenean Behatokiko arduradunek azaldu zuten moduan, euskaldunari garesti ateratzen zaio dagozkion eskubideak aldarrikatzea eta administrazioari, aitzitik merke eskubideak urratzea. Izan ere, ez dago mekanismorik egiten dituzten urraketak "ordaintzeko". Eta horrek, euren aldetik urtez urte egoera hobetzera egin orde, okertzea dakar. Urte honetan ildo horretan hainbat adibide ezagutu dugu. Administrazioek eta euren menpe dauden poliziek ere, azken aldian errepresioari dagokionez, urrats larriak egin dituzte. Euskaraz egitea eskatzeagatik, isunak, irainak, tratu bortitza eta kasu batean espetxe zigorra eskatzera ere heldu dira aurtan. Kasu hauek, bi gauza argi adierazten dizkigute, gutxienez. Batetik, eta administrazioei dagokienez, gero eta lotsa gutxiago dutela hizkuntz eskubideak urratzeari dagokionean. Eta nahiz eta hitzez herritarren mesedeetara egon jokabidez, kasu hauetan kontrakoa dela. Bigarren, herritarrek ez dutela zapalkuntzarik onartzen eta jarrera irmoari eusteko prestutasuna dutela, zigorren gainetik.

Hizkuntz eskubideen alde lan egiteko oso tresna baliagarri eta garrantzitsua da Behatokia. Bost urte hauetan egin duen lana txalotu nahi du EHEk. Bide batez, herritarrei, orain arte bezala edo gehiago tresna hau erabiltzeko deia egin nahi die. Izan ere, Behatokiaren lana herritarren esperientzietan oinarritzen da. Bizi dugun gutxiagotze eta zapalkuntza egoera gaingitze bidean tresna ezin hobea dugu salaketarena.●

Hizkuntz eskubideen alde lan egiteko oso tresna baliagarri eta garrantzitsua da Behatokia. Bost urte hauetan egin duen lana txalotu nahi du EHEk

Zure denda erotikoa

SEX

PITTILIN GORRI

Sexua euskaraz bizi

GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA
OIA RTZUN

Obren egite eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"

Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ
Tfno./faxo: 945 14 02 17 • Mobil: 639 81 51 30

HELADOS

Nestlé

bar • restaurante •

albeniz

Errege atea, 9 • GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85



IZARRA TABERNA - JATETXEA
BITORIANO - ZUIA (ARABA) • 945 430 073

XIXILU JATETXEA

AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 • GASTEIZ

UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA

KERAMIKA HERRIKOIA ETA BERRIA

HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

Xabier

taberna

musika ona
eta giro ezin hobea

Aiztogile kalea (KUTXI), 23

uetzal

Hegoamerikako jantzirik ederrenak

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko ertzean) Tfnoa: 945 25 03 52

BAR KLAKÉ


KUTXA, 2
TFNS. 143883

GASTEIZ

ARANBIZKARRA

ZURE AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz



eguneko menua

DIBUtec

Paper Berzikiak
Arte Ederretarako Materiala
Ink Jet original en birtzidatutak
Bulego Materiala
Enkunderentziak
Plastifikazioak
Kopioak
Kamiseten Estampaketak

azkarpint
Imprenta / Inprimategia
Edozein inprimaketara mota.

• PAPERTEGI TEKNIKOA • Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ • INPRIMATEGIA •

EGUR

Zurezko Teilatuak
Muntaiak Garabiarekin
eta Berrikuntzak

Padurea kalea 12, 16 Pab.
Golain Poligonoa, Legutiano
01171 Araba
Tel.: 627 417 747
Faxa: 945 465 921
montajesegur@euskalnet.net



eusko alkartasuna

www.euskoalkartasuna.org
c/ san prudencio 3
gasteiz-erdialdea



Gazte Abertzaleak

www.gazteabertzaleak.org
c/ vicente manterola z/g
zaramaga

Euskeraz Araban BAI

Argazki - Estudioa

Erramun

Heraclio Fournier, 23
Tfnoa: 13 71 02 01006

Askatasun kalea, 5
Tfnoa: 26 19 91 01004

sartu

Zure arropa eta oinetakoa

www.sartudenda.com

Kutxillera, 27 • Gasteiz • 945 260 710

IZARRA TABERNA

Preziositate, estalaketak osatzen

JANTOKI BEGETARIANO

SAN FRANCISCO XABIERKOAREN KANTOIA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL: 945 27 65 33

geugasteiz.com

HEGOALDE
Euskaltea

Matrikula zaituz !!

Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

SU TA GAR

AITOR GOROSABEL, abeslaria:

“Inoiz baino disko indartsuagoa



[josune velez. de mendizabal]

[arg.: su ta gar]

Urte hauetan guztietan sekulan etenik ez du egin taldeak, musikan haziz eta helduz. Pasa den apirilean, bere zigilu propioa estreinatuz, 'Jo ta ke' izeneko, Su ta Garrek disko berria kaleratu du, 'Jainko hilen uhartea'. Urteen poderioz itzali ez eta bizirik mantentzen den taldearen seinale, alegia. Aitor Gorosabel taldeko abeslariak GEUrekin birpasatu du Su ta Garren ibilbidea.

Bide bat ireki zenuten euskal musikan. Nolakoak izan ziren hastapenak? Imajinatzerik honaino helduko zinetela?

Atzera begiratu eta 18 urte pasa direla ikusten duzunean flipatu egiten duzu. Gustuko duzuna ogibide bilakatu dela ikusi eta denborak aurrera egiten du gu kontziente

izan gabe, ia-ia. Tailerrean bageunde lanean orduan agian kontzienteago izango ginateke, baina disko bat beste baten atzetik egiten duzunean ez duzu hainbeste baloratzen. Kontua da 15 urte nituelarik gitarra bat hartu nuela lehenengoz eta ordutik ibili garela jotzen. Hastapenetan gure kezka bakarra gitarra eta anplifikadorea lortzea zen; kontzertuak eskaintzea, berriz, ametsa zen. Pentsatzen jartzen zarenean konturatzen zara gure belaunaldi berekoak direla Barrikada, S.A., La Polla edota Fermin Muguruza..., eta ostean ondorioztatzen duzu Euskal Herrian dagoen merkatu musikalean mantentzea oso zaila dela, zaila baita saltzea mugak daudelako. Gu zentzu horretan goian mantendu gara kontziente izan gabe. Orain ordea, diozu, beno eta hamar urte barru, 47 urterekin, gauza bera egiten jarraituko dut?, baina hau ez bada zer egingo dut?,

bizitza guztian egin dudana da-eta (barre egiten du).

Garai hartako (90 hamarkada) panorama musikalean agian talde berrientzat aukera gehiago zegoen, ezta?, gaur egungo talde gazteek musikagintzan euren lekua egiteko zailagoa daukatela ematen du eta.

Bai, hala da. 90. hamarkadan rocka ez zegoen hain normalizatua, baliabide gutxiago zeuden eta oholtza gainera igotzean denek hitz egiten zuten zutaz. Garai hartan disko bat grabatzea ere zailagoa zen. Gaur egun ordea, belaunaldi berriek etxean, eta gainera kalitate handiz, graba ditzakete euren diskoak. Hain saturatuta dago merkatua nabarmentzea zailagoa dela gaur egun.

Musikagintzan, merkatuari dagokionez, gauzak aldatzen ari direla begibistakoa da, diskoetxeak itxi, pirateoa...,

'JAINKO HILEN UHARTEA'

gauzatu dugu”

Diskografia luzea egin dute eibartarrek lehenengoz musikan aritzeko elkartu zirenetik duela 18 urte. Su ta Gar, euskal metala sortu, garatu eta zabaldu ostean, Euskal Herriko musikaren historian erreferente bilakatu da.

nola bizi duzue zuek egoera?

Zuzeneko atera genuenean nabaritu genuen askoz gutxiago saldu zela. Disko bikoitza zen eta gainera zuzenekoak beti dira dokumentu historikoa, oso ondo funtzionatzen duena salmentei begira...eta orduan konturatzen zara Top mantak eta horrelakoak egiten duten kalteaz...guri ere horrelakoak bizitzea tokatu zaigu eta....

Zuek ordea, "zuen proiektuaren jabe" izan nahi zenuten eta zuen ametsari heldu diozue 'Jo ta ke' zigilu propioa sortuz. Zergatik? Zer-nolako abantailak ditu horrek?

Zigilu propioa sortzearen ideia askatasunez jokatzeko nahitik etorri zen. Hau da, gu produktua gara baina bideoklipa egin nahi duzula, ez dakit non jo nahi duzula, maketa bat berrekoiztu nahi duzula, liburu bat edota argazkiak larru gorritan egin nahi

dituzula (barre egiten du azkenengo honetaz), beti eskatu behar da baimena eta beti egongo dira mugak, diru gutxi dagoela edo dena delakoa. Azken finean, multinazionalen mundua oihana da, non euskal produktuek indar askorik ez daukaten, behitu Metak-en itxiera..., publizitatearekin ere ez duzu "ezer jaten", merkatuak sastatzen zaitu..., hortaz, askatasunez jokatu ahal izateko sortu dugu gure zigilua. Hasieran kontratazio bulegoa jartzea pentsatu genuen baina gure diskoak bakarrik ekoiztea erabaki dugu azkenean.

'Jainko hilen uhartean' diskoak kanta lasaiagoak biltzen dituela aipatu du kritikak. Nola definituko zenukete azken lan hau? Gainontzekoekin alde nabarmenik duela esango zenukete? Lasaiagoak ez dira baina egia da ez direla gainontzeko diskoetakoak bezain azkarak.

Hala ere, inoiz baino disko indartsuagoa gauzatu dugu. Kanta bakoitzak bere arima eta bere istorio propioa du, elkarren artean erabat desberdinak dira eta bata bestearekin ez dauka zerikusirik, nahiz eta Su ta Garren disko guztietan bezala *kañeroagoak*, lasaiagoak edota baladaren bat edo beste ere egongo diren. Definitzekotan gaur egungo diskoa dela esango nuke, ez 80., ez 90. hamarkadakoa, baizik eta egungoa.

Bideoklipa ere gehitu diozue, Gasteizen Juanma Bajo Ulloarekin egindakoa. Zuek egin zenioten proposamena berari, ezta?

Bai, Gasteizen ibili ginen grabatzen. Berarekin harremanetan jarri ginen zeren nahiz eta ez dugun esango bere filmen fans-ak garenik, bai gara zaleak, hor dago Air-Bag eta bere elkarrizketak...Hortaz, aurrekontua adostu genuen eta hortxe ibili ginen Florida

SU TA GAR

parkean, tren geltokian eta ziber batean grabatzen. Tipoa *enrollatu* zen eta formula bilatu zuen gure ideia aurrekontura egoki zedin.

Letrei dagokienez, Su ta Garrek beti ozen abestu eta kritikatu ditu Euskal Herrikoaz gain, beste herri zanpatuetako egoera edo eskubide falta. Oraingo honetan ere horrela egiten duzue. Inoiz zentsurarik pairatu al duzue horregatik (S.A.ren kasúan bezala, adibidez)?

Ez, sekulan ez zaigu zentsuratu letrengatik S.A.ri gertatu zaion bezala. Gauza da guk ez dugula hainbeste arrakastarik Espainiako merkatuan, S.A.k bezala. Guk han ez dugu hainbeste kontzertu egiten, urtean lau asko jota. Baina bai duela urte batzuk Gasteizko Udalak gu kontratatu eta gero hiriko jaietan jotzeko, atzera egin zuela, eta hor erbia azaldu...; gero Chenoarekin ordezkatu nahi izan gintuzten eta azkenean Chenoak ez zuen jo. Gezurrak ibili ziren tartean, ETak mehatxatu zuela esan zen eta guzti, eta zentzu horretan Chenoak prentsaurreko bidez ezeztatu zuen, oso ondo jokatu zuen.

Zuen letrak zuzenak izan dira beti, oraingoan urteak aurrera doazela leunagoak al zarete?

Ez dut uste. Egia da gazteagoa zarenean biszeralagoa zarela baina sekulan ez dugu inor iraindu gure letretan, sutilak izan gara eta zentzu horretan beti isladatu ditugu gure sentimenduak letretan. Agian esan daiteke politago idazten dugula orain 36 urterekin 16urterekin baino, baina hala eta guztiz ere ez dut uste


ez musikan ez letretan leundu garenik. Azkenean beti ateratzen baita hasierako "zain" hori. Lerro berean jarriatzen dugu.

Denborarekin ordea, entzuleria, zaleak aldatu al dira? Hots, zuekin batera kozkortzen hasitakoak dira edota adin guztietakoak, belaunaldi desberdinetakoak?

Gure musikak belaunaldi berriak berreskuratzen ditu eta hori da gure iraupenaren sekretua gure ustetan. Bai, 30 urteko jendea zein 14 urteko gaztetxoak datoz gure kontzertuetara. Datozen gazte askorentzat gurea ikusten duten lehen kontzertua da eta orduan betiko daude zurekin.

Promozio biran zaudete orain. Nolako kontzertuak eskaintzen ari zarete?

Egia esateko buruhausteak izaten ari gara abestiak aukeratzeko orduan. Disko berrikoak 11 dira orotara eta hauek denak abestuz gero, aurreko diskoetakoak ezin sartu, kontzertuko iraupenaz pasa egingo ginatke-eta. Orduan hortxe gabilta kanta berriak zaharrekin tartekatuz•



kontzertuak

maiatzak 12, ostirala, donostia, rock star aretoan

maiatzak 19, ostirala, iruñea, artsaia aretoan

maiatzak 20, larunbata, madril, caracol aretoan

maiatzak 27, larunbata, pontevedra (silleda), silleda rock-en

ekainka 2, ostirala, bartzelona, gusarock nou barris-eko futbol zelaian

ekainak 17, larunbata, urruña, plazan

diskografia

jaiotze basatia, 1991

hortzak estuturik, 1992

su ta gar zuzenean, 1993

munstro hilak, 1993

sentimenak jarraituz, 1996

agur jauna gizon txuriari, 1997

su ta gar 1987-1989 (bi maketen edizio berezia), 1999

homo sapiens, 1999

homo sapiens tour'00, 2000

su ta gar jo ta ke, zuzeneko disko bikoitza, 2001

itsasoz beteriko mugetan, 2003

jainko hilen uhartean, 2006



IMANOL MOLINILLO:

"Hegan egiten nuela amestu dut askotan"

Imanolek gogoz kolpatzen ditu bere txirrindulako pedalak alde zaharreko maldetatik gora. Jatorriz madrildarra, andaluziakoak bere gurasoak, eta bere bi alaba eta emaztearekin batera Gasteizen bizi da egun. Ikuskizunak, barazkiak, natura eta txokolatea dira bere gutizia.

[maite lekue] [arg.: edorta sanz]

Bertutea? Pazient eta transigientea naizela jendearekin.

Akatsa? Neurekoia izatea.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik? Puntualtasun ezak.

GEU elkarte eta aldizkariaren berririk bai? Bai noski, hasiera-hasieratik ezagutzen dut. Aldizkaria sortu zenean harpidedunak behar izan ziren eta irakasle batzuekin batera harpidetu nintzen garai hartan.

Egunkari bat? Berria gustatzen zait; bestalde, Gara ere irakurtzen dut.

Telebista saio bat? El loco de la colina, elkarriketak egiteko beste era bat erabiltzen delako.

Filmik gustukoena? Ni ez naiz oso pelikulazalea, hala ere, El Padrino oso lan borobila iruditzen zait.

Jaki gozoren bat? Txokolatea!
Fobiarik edo beldurrik? Txikitan izan ditut hainbat beldur, iluntasunari eta ekaitzari adibidez, baina adinarekin gainditu ditudanak. Gaur eguneko beldurra etorkizunak ekarriko diguna da.
Oporrak non eta zertarako? Itsasaldean, argitsua den lekuan. Atsedean hartu, lekuak bisitatu eta jendearekin harremanetan jartzeko.

Nora ez zinateke joango? Afrika aldera ez nintzateke joango, ezezaguna eta urruna egiten zaidalako.

Liburu bat? Askok maite dudan

liburua Versus Sala da.

Kolore bat? Kolore biziak gustatzen zaizkit; alaiak direnak. Laranja adibidez nahiz eta gero nik ez jantzi.

Errepikatzen zaizun amets bat? Hegan egiten nuela.

Musika gustukorik? Denetarik gustatzen zait baina mementoan New Age estiloko musika entzuten dut. Lehen Serrat entzuten nuen, lehenengo diskoa gehienbat, oroitzapenengatik.

Zer da Gasteizek duen onena? Hiriaren tamaina, hiri handia ezta txikia ere ez delako. Bizikletaz mugitzeko, mendira joateko eta paseatzeko aproposa da.

Txarrena? Hiriak duen iluntasuna. Estatu mailan argi gutxien duen

✓ **Ingeniaritza Teknikoko ikasketak egin zituen Arrasaten.** Ondoren, Arte eta Lanbide eskolan izan zen klaseak ematen, eta egun Udaleko Hezkuntza Teknikaria da.

✓ **Bizikletaz ibiltzea gustuko du, kirola praktikatzeko zein garraibide bezala.**

✓ **Ikuskizunak asko gustatzen zaizkio, kalekoak zein antzokikoak, ondo pasatzeko eginak direnak.** Ikusitako azkena Monthi Pytonen esketak izan dira.

hiria dela diote.

Euskaraz bizi daiteke Gasteizen? Nik uste dut baietz. Nire bizitzako arloetan, familian, koadrilan, lanean, euskaraz egiteko aukera dut.

Amesgaizto bat? Iluntasunarekin loturikoak.

Zer eskatzen du herriak? Une honetan itxaropentsu gaude denok. Posible da irteera polita ematea egoerari. Nire zalantza politikarien aldetik dator, haien esku gaude eta beren maila eskasa da.

Funtzionarioaren topikoa zein da? Ez dugula lanik egiten, ondo bizi garela. Gu jendearen zerbitzura gaude eta horri ekin behar diogu beste langileek egiten duten bezala•

[maite lekue / saioa fdz. de arangiz]

Udaberria

Eguzkia, euria, loreak, naturaren berpiztea, alergiak, maitasuna, kale giro alaia, argi gehiago... Esalmodearen arabera, aztoratzeko garaia heldu da. Udaberria, urtaro desiatua batzuentzat, beste batzuentzat, aldiz, neguaren ondorengoa. Geu kalera irten da jendearen usteak bitzera:

- 1) Ba al du eraginik zuregan udaberriak? Zertan?
- 2) Zure aldartea aldatzen al du?
- 3) Urtaro ezberdinak egotea gogoko al duzu?



Aintzane Erkizia, museo teknikaria

- 1) Bai, eguraldi onak umorea aldatzen dit. Naturazalea naiz, herrian jaioa eta hazia naiz eta asko nabaritzen dut. Argi gehiago egoteak alaitzen nau.
- 2) Bai, onerako. Esan bezala, umorea aldatzen duela uste dut. Esaterako, euria egiten badu etxean geratzeko gogoa duzu, eguzkiarekin berriz, kalera irteten zara.
- 3) Bai, urtaro desberdinak egon behar direla uste dut. Urte osoan 25 gradu egotea edo beti negua izatea ez dut gustuko. Denetarik egon behar.

Jessica Garcia, ikaslea

- 1) Bai, askoz alaiago nago. Kalera ateratzeko gogoa ematen dit eguraldi onak eta jendea ere alaiago dagoela sumatzen da.
- 2) Bai, orokorrean esanda, pozik egoten naiz.
- 3) Nahiago nuke beti eguraldi ona izatea, uda baita nire urtaro gustukoena.



Herbierto Gaitero, irakaslea

- 1) Ez, ezertan. Hala ere, argia eta tenperatura ona egotea eskertzen da.
- 2) Ez, hauek esaerak dira eta ez dute niregan eraginik izaten.
- 3) Udaberrian eta udan argi eta bero gehiago daukagu, dena den, udazkenak eta neguak ere alde onak dituzte. Denetarik egotea ondo dago, horrela kontrasteak baloratzen ditugu.

IDAZLEENZUTABEA

WILLIAMS

[iban zaldua]



Giltza sarrailan sartu bezain laster nabaritu du nola jabetu den bere gorputzaz egunean zehar metatutako neke guztia. Ordezkapen bat besterik ez da, huskeria bat ordaintzen diote, eta gainera jota amaitzen du. Eta autobuseko joan-etorrian sartu beharreko ordu pareak ez du batere laguntzen: lo geratuko balitz sikiera, gaitzerdi, baina, saiatu arren, ezinezkoa zaio, gidariak jartzen dizkien film txarren zaratarekin.

Atea itxi du, eta arraroa iruditu zaio Haizea ez agertzea "Aitatxo, aitatxo" esanez: umeak ia egunero betetzen duen zeremonia da, ibiltzen ikasi duenetik. Fondoko gelatik PJ Harveyren kanta baten doinu moteldua iristen zaio; garai batean atsegin zuen disko hori. Doinuaren azpitik ordenagailuko teklatuaren staccatoa aditzen du: Malen lanean ari da, agentziak igortzen dizkion bezeroen eskaerak birzuzentzen, hornitzaile posibleen eskaintzekin ezkontzen ahalegintzen, e-mailak bidaltzen. Haren mahaia irudikatu du, katalogo irekiek, San Miguel lata hutsek eta zigarrokinek estalia. Batzuetan ez daki zer den okerragoa, kanpoan ala etxean lan egitea.

Komunetik pasatu da lehenik eta behin: txiza egin behar du. Eskuak garbitu, norbaitek irekita utzi duen armairuaren atea itxi. Konketa ilez beteta dago. Bereak direla konturatu da, goizean bizarra egin duenekoak.

Malenen gelak argi urdin bat isurtzen du, ordenagailuarena, itzal estrainioak proiektatzen dituen; beti bezala, flexoa piztea ahaztu zaio, baina oraingoan ez dio ezer esan.

- Non dago Haizea?

Txirri usaina dago airean; Potoliren uztakoa, pentsatu du. Ez zekien oraindik geratzen zitzaienik.

- Bere gelan egongo duk, han utzi diat jolasean -Malenek ez du bista pantailatik apartatu.

- Afaria...?

- Ez, ez zioat eman oraindik. Hozkailuan urdaiazpikoa geratzen dela uste diat. Hasi zuek. Berehala joango nauk ni.

Alabaren gelara sartu da, baina ez daki "Kaixo!" esatera heldu den ala ez. Haizea lurrean dago, bere kuxin kuttunaren gainean etzanda, eta begiak mugitu ditu bera sartzean, irribarre egin duela iruditu zaio, are altxatzeko inintzioa ere, baina han geratu da. Inoiz ez dizkio halako betzularik ikusi, ilun-ilunak. Kuxinaren ondoan desodorante stick bat dago, Williams Sport. Fresh. NO mancha la ropa. Frescor Revitalizante. Dermatológicamente testado. Irekita. Estalki berdea sehaska ondoan dago.

Ahoa usaindu dio Haizeari. Williams Sport. Besoetan jaso du.

Ergelki, desodorante marka hura erabiltzen hasi zen garaiaz oroit du. Ozono geruzako zuloaren kontuaz hitz egiten hasiak zirela orduan. Bizpahiru probatu zituela gogokoena hura zuela -zutela- erabaki arte. Williams Sport.

Eta aldi berean Maleni deitu dio, oihuka•

Alboka V. Topaketa herrikoia, Otazun, ekainaren 3an

Otazu herrian (Araba) izango da aurten bosgarrenez antolaturiko Alboka Topaketa Herrikoia. Sorginetxe eta Otaka kultur Elkarateek antolatuta, ekainaren 3an goizeko hamaiketatik aurrera alboka izango da protagonista, baina ez ordea, bertako musika-tresna bakarra.

[josune vlz. de mendizabal]

"Euskal Herriko albokarien presentzia aparta, bestelako musikariak ere gonbidatuta daude jai honetara -dio Osas antolatzailleak-. Edozein musika-tresna erekin nahasketa egitea bilatzen baitugu". Egunean zehar ekitaldi desberdinak egongo dira, eta egunari amaiera emateko Ibon Koteron eta bere taldea, eta Kukuma talde bizkaitarra arituko dira.

Otazu herritik abiatu zen lehengo 2001ean Alboka Topaketa Herrikoia. Orduetik Albaina, Zalduondo eta Lantziegotik pasa da arrakasta handiz, eta bost urteren buruan aurten Otazura bueltatuko da berrirori ere. Otaka Kultur Elkarateak eta Sorginetxe Kultur Elkarate arabarrak antolatu dute ekainaren 3ko egitaraua. Osas Sorginetxe Elkarateko kideak, historia gaur egunera ekarri honako hau dio barrezka: "Topaketa hauek gauza guztiak bezala sortu ziren, 'baitz egingo dugula, ezetz, baitz...' eta azkenean egin genuen".



Alboka idartzea zuen xedea topaketak eta Hernanin egin ohi diren tankeran Araban ere martxan jartzea erabaki zuten. Egun, Arabako albokariak eta musikariak gerturatuz gain, Euskal Herri osoko lagunak ere etortzen dira topaketara, baita munduko beste herrialde batzuetakoak ere. Osasek nabarmentzen duenez, "albokarekin lotura daukaten musika-tresna guztiek dute leku jaia honetan".

Sorginetxe Kultur Elkarateak albokaren ikerkuntzan egiten du lan. Osasek berak Otazuko lantegian albokak egiten ditu. Horregatik, aurreko urteetan albokaren familiakoak diren

musika-tresna desberdinen bilkura egin nahian Sardinia tradiziozko tresna, 'launeddas' izenekoak, eta baita Hungariako 'duda' delakoa ere, izan dira present Arabako topaketetan, Zalduondon eta Lantziego herrietan, hurrenez hurren. Antolakuntzatik pozik agertzen dira albokak egun erakusten duen egoera eta mailari dagokiolarik, baita topaketak orain arte jaso duen erantzunagatik ere. "Iaz herri bazkarian 200 eta piko lagun egon ziren, aurten 300 lagunentzako tokia dago. Hori da gure marka, baita topea ere", barre egiten du albokariak.



egitaraua-otazu- ekainak 3

Egitarauari dagokionez, ekainaren 3an goizeko 11etan bilduko dira bertaratu nahiko duten albokari guztiak, ostean, 11:30ean, kalejiran Otazuko herritik abiatzeko. 13:30ean Albokarien entzunaldia izango da eta arratsaldeko 15:00etan herri bazkariari hasiera emango zaio, bere derrigorrezko bazkalondoarekin. "Hemen inprobisazio tarteak sortzen dira, non musika-tresna desberdinak nahasten diren. Norberak bere musika-tresna eraman dezake eta", animatzen du Osasek. Arratsaldeko 19:30ean hiru albokaren zozketa egingo da eta jarraian musika emanaldiari emango zaio paso. Aurten Ibon Koteron albokariak eta bere taldeak animatuko dute dantzaldia, eta ondoren Kukuma talde bizkaitarraren musikak itxiko du aurtengo Alboka Topaketa Herrikoia.

MARRAZKIAK · KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

Euskadik
behar zaitu



ZURE HARATEGIAK



Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 • GASTEIZ



**XABIER
AIZPEOLEA**

HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3 ☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3 ☎ 945 26 78 97



gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak

El Clarete

JATETXEA



UNAI ETA PATXI FERNANDEZ DE RETANA
ZERKABARREN KALEA, 18

01008 GASTEIZ

945 263 874

IRYSTA

TABERNA

poteo eta pintxoak

Mateo Moraza 19

Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak

LA RIOJANA
jatetxea

on egin!

bokatak,

pintxoak,

kazuelatxoak

Aiztogile kalea (Kutxi), 33 tfnoa. 945 25 02 39



GORETTI

ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)

Tfno: 945 12 08 88 • 01001 • GASTEIZ

Udaberria
euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
 - Helduentzat
 - Ume eta gaztetxoentzat
 - Musika eskola
 - Dantza
- Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

ARTEPAN
Artisan



Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2

Tfnoak: 945 27 88 88 • 28 72 37
01005 GASTEIZ

**EYSKAL LABELA
LASAGABASTER**

harategia eta urdaitegia

Gasteizko

haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24

Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

Confecciones
Pinedo
JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

MENDIA OPTIKAK 150 URTE



ikus dezazun

Zatoz eta eraman
opari-oroigarri
bat zure
erosketarekin

1856-2006

Mendia Optikan belaunaldiz belaunaldi zaindu ditugu zure begiak.

Gaur egun teknologia berrienak erabiltzen ditugu, baina hasi berrian bezala, gogo eta arreta berberaz zerbitzatzen zaitugu.

150 urte bete ditugu, eskerrak zuri.

MENDIA OPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza • Olagibel 33.
Gasteiz

NEFF, EUROPAR ZINEMA BERRIAREN JAIALDIA



Zinema nonahi Gasteizen maiatzean

Maiatzaren 5etik 13ra bitartean Gasteiz zinema hiri bilakatuko da, Europar Zinema Berriaren jaialdiaren bigarren edizioari esker. Filmak, musika, protagonistak, ekintzak, jardunaldiak eta eztabaida anitzek Europako zinemagintza agerian utziko dute hiriko txoko desberdinetan.

[saioa fdz. de arangiz] [arg.: edorta sanz]

lazko lehen eskarmentua kontuan harturik, aurten Europar Zinema Berriaren jaialdia aldaketa kualitatibo eta kuantitatiboaz datorkigu. Gasteizko Udalak eta Montehermoso Kulturuneak antolatuta, 9 egunetan ehun film inguru erakutsiko dira hirian, gehienak euren zuzendari zein protagonisten agerpenekin. Florida eta Guridi zinema aretoak, Artium museoa, Montehermoso kulturunea eta Arabako Campusa izango dira honen lekuko.

Jaialdia maiatzaren 5ean hasiko bada ere, inaugurazio ekitaldia 6an egingo da Principal antzokian, Jordi Savates-ek Camud Band-arekin antolatu duen 'Keatoniana' ikuskizuna eskainiz, Buster Keatonen filmen musikarekin osatua dagoena.

Hortik aurrera, makina bat aukera zinema maitaleentzat. Atal ofizialean European ekoiztutako 12 pelikulak egingo dute lehia, Finlandia, Turkia, Belgika, Errusia, Irlanda, Alemania, Frantzia, Luxemburgo, Britainia Handia, Suedia, Polonia eta Txekiar Errepublikako lanek, hain zuzen ere. Bestetik, eta lehiaketatik kanpo, Kepa Sojo zuzendari arabarraren 'El síndrome

NEFF
VITORIA-GASTEIZ NEW EUROPEAN FILM FESTIVAL



de Svensson' film luze berria ikusteko aukera egongo da. Baita txapelketaren oinarriak bete ezean, lehiaketatik kanpo geratu diren kalitatezko hainbat film luze ere. Hauek 'Bitxiak' atalean ikusgai egongo dira, adibidez, 'Sud Express' espainiar-portugaldar filma.

Film laburrek ere izango dute parada NEFF jaialdian. Cortada atalean 30 film labur egongo dira lehian. Hauen artean zazpi urteko euskal film labur onenaren saria eskuratzen saiatuko dira. Bestetik, azken urteetan germaniar lurraldeetan ekoiztutako film labur adierazgarrienak birpasatuko dira, Goethe Institut-aren laguntzaz. Eta Alemania izango da, hain zuzen, Belgikari lekukoa pasako diona, aurtengo edizioaren herrialde gonbidatua baita. Horrela, europar herrialde txiki honen lana erakutsiko du zinemaldiak, besteak beste, Deruddere, Dardenne anaiak eta Hansel-en obrak.

Halarik ere, Europako zinema ez ezik, munduko bestelako zinemagintzek ere izango dute garrantzia, Europe from America sailean, hain zuzen. Honek bi kontinenteen arteko elkarrekikotasun kulturalaren inguruan hausnarketa egitea du helburu.

Bigarren edizio honen berrikuntzen artean, musikari emango zaion arreta topa dezake ikusleak; filmen ('El Calentito' edo 'Metallica; some kind of monster', esaterako) zein hainbat kontzerturen bidez.

Zazpigarren artearen izarra izan zen Marlene Dietrich aktorearen inguruko erakusketak eta haurrei zuzendutako zikloak osatzen dute, azkenik, NEFF jaialdiak Gasteiz hiria zineman murgiltzeko prestatu duen programazioa.

Fernando Lopez Castillo,

Nola sortu zen NEFF jaialdia?

Azken 25 urteetan asko izan dira zinemaren inguruan gure hirian gauzatu diren jaialdiak; Udalaren Bideo musikalaren Jaialdia eta Zinema Eskolen Jaialdia, Vital Kutxaren Euskal Zinemaren Astea, film laburren Cortada edo Fila2 elkartearen Nazioarteko Jaialdia, batik bat. Izan ere, ez zegoen erakuste hauen guztien arteko koordinaziorik eta hori dela eta, orain dela 4 urte inguru Udalak zinema jaialdien mapa abian jarri zuen. Helburua ez zen emanaldien kopurua murriztea, jaialdiak modu egokian koordinatzea baizik. Horrela, iaz jaio zen Europar zinema berriaren jaialdia, Ikus-entzunezko Jaialdia eta Gasteizko Nazioarteko Zinemaldiak bat egitean. Honi Vital Kutxaren Euskal Zinemaren Astea ere gaineratu zitzaion. Horrela, urte osoan zehar erakusteak egotea lortu dugu: Cortada abenduan, Euskal Zinemaren jaialdia otsailean, Zinema esperimentalak ekainean, Giza Eskubideen Zinemaldia urrian eta lehiaketako NEFF jaialdia maiatzean.

Zein da jaialdiaren filosofia?

Urtero estatu espainolean 120 pelikula eta 200 film labur ekoizten dira eta atzerritik 400 pelikula ekartzen dira, hauetatik 220 amerikarrak izaki. Europan, berriz, 1.000 pelikula inguru ekoizten dira, baina soilik 20 bat ikusten ditugu. Halarik ere, nire aburuz, azken hauen kalitatea askoz hobea da. Izan ere, multinazional estatubatuarrek hemen ikusten ditugun filmen banaketaren eta erakustearen erabateko kontrola dute eta ondorioz, europar film gutxi batzuk ikusten ditugu. Gauzak horrela, bi dira gure xedeak; batetik, gutxitan ikusgai dauden lan hauek jendearen aurrean jartzea, eta bestetik, publikoa hezitzea. Azken finean, beti bestelako kulturetatik eratorritako gauzak ikusten baditugu azkenean kultura hori gure kulturari isladatuko da. Hortaz, gure kultura zabaldu, bultzatu eta bizi behar dugula uste dugu. Baina Amerikan egiten den kalitatezko zinema independentea baztertu gabe, horretarako ere lekua egongo baita jaialdian.

Zein da iazko jaialdiaren balorazioa? Nola egingo diozue aurre aurtengo edizioari?

Iazkoa hastapeneko esperientzia izan zen. Kalitatezko filmak eta epaimahaia ekartzea lortu genuen eta oso pozik gaude. Dena den, jaialdiak oraindik ere denbora behar duela uste dut, jaialdia eta bere filosofia sendotu dadin. Izan ere, aurtengo gauza asko hobetu ditugu, hala nola, antolakuntza eta atal eta leku berriak atondu ditugu. Zer nabarmenduko zenuke aurtengo programaziotik?


Oro har esanda, berrikuntza asko daudela, esaterako, beste zinematografietako 'bitxiak', epaimahaiaren filmak, zinema musikala eta batez ere, hiri guztian zehar egongo garela, aurtengo emanaldiak eta ekintzak leku gehiagotan burutuko dira-eta.

Zinema ikusle eta sortzaileei dagokienez, zein da Gasteiz hiriararen egoera?

Azken urteetan aldaketak egon dira. Hainbat zinema areto itxi dituzte eta areto berriak hiriararen kanpoaldean ireki dira, non aisialdirako bestelako aukerak eskaintzen dituzten (zinema barne).



NEFF jaialdiaren zuzendaria



Izan ere, oraindik oso interesgarria suertatzen den publikoaren %33k kalitatezko zinema du gustuko eta hiriguneko aretoetara doa. Sortzaileei dagokienez, 90. hamarkada nabarmendu beharra dago, bereziki Telleria eta Bajo Ulloaren belaunaldia, non bideo, zinema eta musika arloan 500 profesional baino gehiago genituen. Egun, belaunaldi berria dago eta esaterako, arabarrek egindako hiru film estreinatuko dira laster, Mikel Dorronsororen 'La Distancia' edo Kepa Sojoren 'El síndrome de Svensson', adibidez. Nire ustez, talentu asko dugu hemen, baita azpiegitura falta ere•

EPAIMAHAI APARTA

Egungo europar zinema ongi asko ordezkatzeko duen epaimahai bikaina izango da aurtengo NEFF jaialdian. Aizpea Goenaga aktore eta zuzendari donostiarrak, Carlos Suarez zinemagileak, Teresa Fabrik zuzendariak eta iazko NEFF jaialdiaren irabazleak, Vojtech Jasny txekiar zuzendariak, Noa Roll-ek, zinema israeldarra munduan zehar hedatzen diharduenak, eta Mihai Chirilov zinema kritikoa errumaniarrak aurtengo sariak banatuko dituzte.



Bisita gidatuak



ZUIAko Koadrila

NATURA BIZIA

NATURA, HISTORIA ETA
HERRI-ARKITEKTURAN
ZEHAR

3 IBILBIDE



MAIATZA:

- 14 - 'Jauregien arteko bideak'
- 21 - 'Ura eta harriaren artean'
- 27 - 'Naturaren fruitua'

EKAINA:

- 4 - 'Jauregien arteko bideak'
- 10 - 'Naturaren fruitua'
- 17 - Egun osokoa (itzulera 17:30-18:00etan): Zurbao-Oleta-Legutiano, Oikoizta, Murgia, Olano
- 25 - 'Ura eta harriaren artean'

UZTAILA:

- 2 - 'Jauregien arteko bideak'
- 8 - 'Naturaren fruitua'
- 16 - 'Ura eta harriaren artean'

ABUZTUA:

- 25 - Irteera 16:00-19:00etan Legutianotik. Oleta, Ollerietako museoa eta Zurbao

IRAILA:

- 9 - 'Naturaren fruitua'
- 17 - 'Jauregien arteko bideak'
- 24 - 'Ura eta harriaren artean'

URRIA:

- 1 - Egun osokoa (itzulera 17:30-18:00etan): Guriuri, Murgia, Gopegi, Gorostizako San Pedro baseliza, Oikoizta, Urbina eta Luku
- 8 - 'Jauregien arteko bideak'
- 21 - 'Naturaren fruitua'
- 29 - 'Ura eta harriaren artean'



NATURAREN FRUITUA

Oleta - Ollerietak - Urbina - Uribarri-Ganboa

JAUREGIEN ARTEKO BIDEAK

Olano - Murgia - Murgia - Zurbao

URA ETA HARRIAREN ARTEAN

Oiardo - Guriuri - Izarra - Abezia



Irteerak: Goizeko 9etan
Itzulerak: 14:30ean eta 18:00etan.
Europa Biltzar Etxean.



Bisitaldi gidatuak autobusez.
Goizeko bisitaldia: 4 € (lagun bakoitzeko)
Egun osokoa: 22 €
(Eskualdeko jatetxe batean bazkaria barne)



**Maiatzetik
Urrira arte**




Ibilaldiei buruzko argibide gehiago
eta izena emateko, telefono honetan

945 14 55 99

Informazio turistikoa

Zuiako koadrila
tel.: 945 43 01 67

www.cuadrillazuia.com





Langraizko espetxea:

Hamabost hilabetetan zortzi preso hilda. Horietatik sei beren buruaz beste eginda. Urte eta erdian funtzionarioen aurkako zazpi salaketa aurkeztuta. Horietxek Langraizko (Araba) espetxeak orain arte utzitako zorigaiztoko titular nagusienak. Baina ez bakarrak: tratu txarrak, sexu jazarpenak, salaketak, euren buruaz beste egiteko saialdiak... Larria da oso, jasanezia, Arabako kartzelan gertatzen ari dena.

[edurne begiristain] [arg.: edorta sanz]

Langraizko kartzela albiste bilakatu da azken urtebetean, zoritxarrez. Sei presok beren buruaz beste egin dute azken urtebetean. Azkena (lerrook idazterako bederen) pasa den martxoaren 9an. Leihoko barretatik izara batez lepotik zintzilik aurkitu zuten funtzionarioek preso bat. Zortzi dira hildako presoak azken hamabost hilabeteetan.

Duela urtebete hasi ziren presoak salaketak jartzen. Preso guztiek Mariano Merino Segurtasun buruorde ohia eta beste hainbat funtzionario aipatu dituzte gertaeren erantzule gisa. Orain artean zazpi salaketa jarri dituzte haren kontra: lau emakumek eta hiru gizonek jarri dituzte salaketok. Emakumeek sexu jazarpenak, mehatxuak eta errepresaliak salatu dituzte. Gizonek, diruarekin xantaia egitea, beren buruaz beste egitera bultzatzea eta sexu erasoak. Mariano Merino 2003ko uztailetik egon zen karguan Langraizko kartzelan, 2005eko uztailera arte, dimisioa eman zuen arte. Tarte horretan jazo ziren presoek salatutako gertaera larriak, baita suizidioak ere. Gainerako funtzionarioek, bestalde, beren postuetan jarraitzen dute.

Salhaketa elkarteak behin eta berriro salatu du Langraizko kartzelako egoera. Presoek egindako salaketekin batera, azpiegitura aldetik ere espetxea egoera "tamalgarrian" dagoela ohartarazi du. 1981etik espetxe moduan funtzionatzen du, baina eraikina zaharra da, eta Frankismo garaian kontzentrazio eremu gisa erabili zuten. Horren ondoren birmoldatu egin zuten. Egun 516 ziega daude, nahiz eta Salhaketaaren arabera espetxeak 550 presotik gora hartzeko gaitasuna ez duen.

Espainiako Espetxe Erakundeak makro-kartzelen ereduaren alde egin izanak ez du egoera hobetzen lagunduko. Salhaketak, ELA sindikatuak, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailak eta EAEko Arartekoak, besteak beste, kartzela eredu hori arbuia dute. Izan ere, salatu dutenez, presoek pilaketen ondorio dira buru gaixotasunak, indarkeria, heriotza eta suizidioak, eta abar. Horren aurrean, espetxe txikiak, neurri alternatiboak eta errehabilitaziorako zentro eta programen beharra dagoela aldarrikatu dute. Salhaketaarentzat, hala ere, lehen-tasuna makro-kartzelen planak gelditzea da.

heriotz zigorra ziega barruan

15 HILABETEKO KRONIKA

2004

Abenduaren 15a: Langraizen bi preso agertu ziren hilik. A.N.H. (30 urte) eta M.R.V. (21 urte).

Abenduaren 16a: Langraizko gertaeren harira, EAK espetxeetako eskumenak eskatu zizkion Espainiako Gobernuari.

Abenduaren 30a: R.S.I. 33 urteko preso gasteiztarra maindire batekin urkatuta aurkitu zuten Santoñaako El Duesoko kartzelako bere ziegan. Bi egun lehenago eraman zuten hara, Langraizko espetxetik.

2005

Otsailaren 12a: R.J.M. 33 urteko presoak hilik aurkitu zuten Langraizko espetxean. Ziegakideak aurkitu zuen, bere burua izara batekin urkatuta, komunean.

Martxoaren 21a: Salhaketak adierazi zuen Langraizko funtzionario batek zenbait emakume preso prostituitzera bultzatu zituela.

Apirilaren 25a: Bi emakume presok salatu zuten funtzionario batek sexu harremanak izatera behartu nahi zituela.

Ekainaren 14a: Izara batetik zintzilik aurkitu zuten hilda, ziegan, J.L.R.J. izeneko presoak Langraizen.

Ekainaren 15a: Espainiako Gobernuak espetxeak hain beteta ez egoteko neurriak agindu zituen.

Ekainaren 20a: Salaketa jarritako bi emakumeak presioa jasaten ari zirela salatu zuen Salhaketak.

Ekainaren 28a: Segurtasun buruak inputatu gisa deklaratu zuen, ustezko sexu jazarpenagatik.

Uztailaren 6a: Preso bat bainu-batako gerrikoarekin urkatuta agertu zen erizaindegian.

Uztailaren 13a: Uztailaren 5az geroztik preso bat gose eta egarri greban zegoela jakinarazi zuen Salhaketak.

Uztailaren 15a: Langraizko egoera hobetzeko plan berezia zutela eta segurtasun zuzendariordeak dimisioa aurkeztu zuela adierazi zuen Mercedes Gallizo Espainiako Espetxe Erakundeetako zuzendariak.



Irailaren 2a: Santurtziko preso bat lurrean erorita, hilda agertu zen ziegan.

Irailaren 9a: Langraizko zuzendaria eta segurtasun buru ohia deklaratzera deitu zituzten, ustezko sexu erasoengatik.

Urriaren 7a: Espetxera ordezkartitza bat bidaltzea onartu zuen Eusko Legebiltzarrak.

Urriaren 27a: Jesus Morenok espetxeko zuzendaritza utzi zuen, eta Espainiako Espetxe Zuzendaritza Nagusian ardura handiagoa eman zioten.

Azaroaren 15a: Basaurin hezitzaile lanetan ibilitako Juan Antonio Perez Zarate Langraizko zuzendari aukeratu zuten.

2006

Martxoaren 10a: Langraizen iaz emakume preso bat hil zela jakinarazi zuen Salhaketak.

Martxoaren 24a: Langraizko espetxea itxi eta inguruetan (Zaballako bolborategiaren lursailetan) beste bat eraikiko dutela iragarri zuen Gallizok.

Apirilaren 4a: Jipoia salatu ondoren zainak moztu zituen presoak Langraizera eraman zuten.

ALDAKETAK

Salhaketak Hego Euskal Herriko espetxeetan preso dauden lagunen oinarritzko eskubideak bermatzeko hainbat neurri proposatu ditu:

Hiesa: Gaixotasuna garatu duten presoak kaleratu eta kartzelaz kanpoko harrera zerbitzua eskaini.

Zaintza Berezietako Ospitale Unitateak: Osasun baldintzak bete arte horiek itxi.

Buruko osasuna: Itxita egoteak sortutako desorekentzako baliabide eta langile espezializatuak jarri.

Gaixotasunen dossierra: Norbanakoaren jaraipen zehatza eta zentroen arteko koordinazioa.

Oinarritzko higiena: bermatu elikagaietan, instalazioetan, partekatzen diren geletan eta zigor geletan. Langraizko erietxea berritu.

Droga-menpekotasuna: Horri lotutako delituei begirako espetxe kanpoko zerbitzua eta hezkuntza programa bideratuak.

Osasun-hezkuntza: Gaixotasunen prebentzioa eta norbanakoaren osasunaren autogestiorako programak.

Osasun zerbitzu etengabea: 24 orduko oinarritzko zerbitzua.

Bost urte dira Eorann taldea sortu zela Birkitek (Virginia Perez musikari gasteiztarra) musikan aritzeko zuen gogoaren ondorioz. Ordutik maketa bat eta aurten euren lehen diskoa ere kaleratu ditu laukoteak.

BIRKITE, abeslaria:

“Gure xederik garrantz

[josune vlz. de mendizabal] [arg.: eorann]

Emakume ahotsa protagonista duen taldea zarete. Euskal Herrian badira emakume ahots erreferenteak (Sorkun, Afrika, Zea Mays...), baina ez da ohikoena..., lehentasunik nabaritu duzu musika merkatuan gizonetako edo emakumezko ahotsen kontsumitzaileen aldetik?

Ez dut uste lehentasunarekin zerikusia duenik, egun aurki daitezkeen emakume musikari euskaldunen kopuruarekin baizik (Nun, Neubat, Keike, Kokein...). Gero eta neska gehiago animatzen dira taldeetan parte hartzera, nahiz

eta bakarlari moduan pisu handia dutenak egon, Anari, esaterako.

2001ean jarri zineten martxan, ordutik maketa bat eta disko bat kaleratu dituzue. Nola jaio zen Eorann?

Taldea 2001ean sortu zen, nik gitarra jo eta abesten nuen, Gasteizen ez nuen taldea osatzeko jenderik topatzen eta Bilbon ikastaro bat egiten ari nintzen iragarki bat jarri nuen Mr. Jam musika eskolan; Gontzalek (baxujolea, Bilboko zenbait taldetan aritua) erantzun zuen eta Gasteizen entseiatzen hasi ginen. Hilabete batzuk pasa eta Bilbon jarraitzea erabaki genuen, hango musika korronte edo mugimenduarekin gehiago identifikatzen ginelako, gainera ni hara bizitzera joan nintzen. Handik gutxira gitarrajole eta bateriajolea aurkitu genituen, baina gutxi iraun zuen taldeak. 2003an Adrian (bateriajolea) topatu eta handik gutxira lehen maketa grabatu genuen. Kontzertuak ematen hasi eta baita gitarra bat sartzea pentsatu ere; 2004ko udan Sergiorekin, lagun baten ezagunarekin, hitz egin eta animatu zen. 2005eko amaieran diskoa grabatu genuen eta Idoiak, Sergioren lagun batek, biolina sartu eta egun kontzertuetan laguntzen digu.


Talde bati izena jartzea ez omen da erraza, zergatik Eorann? Esanahirik al du?

Eorann irlandar jainkosa baten izena da, Sarrionandiaren olerki batean topatu nuen ("Elurrezko hegaztia da gure bihotza, Eorann"), Gontzal eta biok bakarrik entseiatzen genuenean. Berari komentatu, gustukoa izan, eta hori hautatu genuen. Batzuek Eratzunen Jauna filmetik atera dugula uste dute oraindik...

Zein xederekin sartu zineten musika munduan?

Zaletasunagatik, argi dago... ez dugu honetaz bizitzeko asmorik, nahiko zaila da gaur egun. Bestetik, Euskal Herrikan kanpoko eraginak ditugu eta hasieratik argi genuen orain arte bertan egiten ez zen zerbait gurea barruan, eta azaleratu nahi gurea. Euskaraz, ingelesez eta gaztelaz abesten dugu eta Post edo

EORANN TALDEA



itsuena kontzertuak ematea da"

Noise kutsua duten abestiak jorratzen ditugu, distortsioa eta efektuekin jolastuz. Jadani Euskal Herritik kanpo jo dugu, Santanderren eta Burgosen, eta Madrilén edoartzelona ere jo nahiko genuke, bertako talde independente asko entzuten ditugu eta.

Nola baloratzen duzue orain arteko zuen ibilbidea?

Hiru urtetan hogeiren bat kontzertu eman ditugu, lehiaketetan parte hartu dugu (Euskadi Gaztea, Villa de Bilbao Pop-rock lehiaketa...) eta izugarri gozatzen dugu jotzen, hori da gure xederik garrantzitsua, kontzertuak ematea. Merkatuari dagokionez, aspaldian begiak ireki genituen eta guretzat merkatuan arrakastarik lortzea ez da lehentasuna, gainera diskoen salmenten egungo egoera dela eta..., guk auto-ekoizpenaren alde egin dugu, gure inguruko hainbat taldek bezala. Gure diskoa kontzertuetan erosi edo gure web-gunean deskarga daiteke (www.eorann.com). Web orrialde bat izatea izugarritzko abantaila da talde txiki edo berri bat ezagutzera emateko; bertan berriak, kontzertuak, argazkiak, mp3ak..., denetarik dago. Orain diskoa atera dugula hasi gara hedabideetan agertzen eta oinarri sendoagoa hartzen, baita musikalki ere.

Zuen estiloak iturri desberdinetatik edaten du. Zuek esanda zuenari etiketarik jartzea ez zaizue gustatzen, baina zuek beste talde berrien etiketa bilakatzea nahiko al zenukete?

Etiketen ideia hori ez dugu batere gogoko, Euskal Herrian bada musika estilo guztiak etiketatzearen joera hori, baita abeslariak elkarren artean konparatzeko joera ere..., ez dugu gogoko. Guk barruan dugunetik eratorritako musika egiten dugu, nahiz eta eragin zehatzak ditugula argi dagoen, Post-rock, Pop edo Noise musikatik datozenak.

Zenbat kanta biltzen ditu diskoak? Baten bat kanpoan utzi behar izan

duzue? Zeri buruzkoak dira zuen letrak?

Diskoak 9 kanta ditu eta ez dugu ezer kanpoan utzi, orain abesti berriak egiten ari gara eta zuzenekoetan jotzen ditugu, uste dut musika estiloz etengabea aldatzen ari garela, geure burua "bideratzen" ari garela. Hurrengo lana ez da honen antzekoa izango, rock eta 80. hamarkadako soinuak ateratzen ari zaizkigu... Hitzei dagokionez, disko honetan denetarik aurkituko duzue, norberaren barrukoak, gizarteari buruzkoak (etorkinak, ingurumena, gerratik eratorritako egoerak...), bada maitasunari



buruzko hausnarketa egiten duen beste bat, edo heriotzari buruzkoa... "konpletito".

Zuzeneko distortsioarekin eta efektuekin jolasten duzuela aipatzen duzue, deskribatuko mesedez zuen kontzertu bat? Noiz dira zuen hurrengo kontzertuak? Eta Gasteizen?

Kontzertu bat? Ba... entzun gaituztenen arabera nolabaiteko soinu-horma bat osatzen dugu efektuekin, batzuetan lagun batek proiektzioak jartzen ditu atzean, orain teklatura jotzen hasi gara eta abesti biziagoak jotzen ditugu... Hobe duzue etortzea eta bertan konprobatzea..., gure hurrengo kontzertua Gaitan (06/04/28) eta Sestaon (06/05/06) dira.

Gasteizen jotzeko asmoa dugu, Gaztetxean edo..., ea maiatzerako zerbait topatzen dugun. Esan digutenez, urritik aurrera Parralen jotzeko aukera izango dugu GEUK antolatutako kontzertuen barruan, eskerrik asko!

Zuen diskoak ziguilurik ez baina Gasteizen grabatua izan da. Zer moduz joan zen grabazioa Sonora estudioetan?

Sonora estudioetan primeran egon ginen Iñaki Alonsorekin, Exhale taldeko gitarrajolea da eta hainbat lan burutu ditu teknikari bezala. Gainera nire lehengusua da... eta oso jatorra gainera! Pazientzia handia izan du grabaketan zehar, gauzak argi zituen eta horrek izugarri lagundu digu.

Diskoa bi hilabetetan grabatu genuen, asteburuetan eta ahal genuenean.

Bertan, esan bezala, Idoia Noriegak biolina sartu du pare bat abestitan, Paulino Riosek (Standard, Paulinos taldekoa) sintetizadorea sartu du eta Exhale taldeko Asier Perezek ahotsarekin lagundu zigun abesti batean. Oso esperientzia ederra izan zen, berriz grabatzeko irrikitan gaude eta bertan egitea primerakoa litzateke.

Zaila al da talde berri batentzat diskoetxerik topatzea?

Diskoetxeei dagokionez, lehen esan bezala merkatuaren arabera gauza da eta argi dago talde berriek, eta bereziki musika "komertziala" egiten ez dutenek edo "aitabitxirik" ez dutenek, ez dutela horrenbeste aukerarik izaten; guk zenbaitekin hitz egin dugu eta baita kritika onak jaso ere, baina azkenean ez da atera. Esan bezala, gaur egun autoekoizpenaren bidea ondo dago, baina oso neketsua da kontzertuak topatzea; horretan promotoreen laguntza ezinbestekoa da areto handietan jotzeko, baita aretoen eta prentsaren laguntza izatea ere. Horretan gaude, gure diskoa hedabide guztietara bidaltzen eta ezagutzera ematen. Bide batez, eskerrik asko emandako aukera honengatik•

maiatzaren

11tik aurrera

**berria
berria**

=

berria²

kazeta eredu
berria

berritzailea, ezberdina,
interpretatiboa,
kalitatezkoa, modernoa,...

gurean
ULERTUKO DUZU

Aukera ezazu, BIZI euskaraz
berria

HAUR&GAZTELITERATURA

UNTXITXO TXURIA

[txabi arnal gil]

Askotan gertatzen da herri hurbilenetako kulturak ezezagunak zaizkigula, eta haue-tako bat, zalantzarik gabe, Portugalekoa dugu. Daukagun zorra kitatzeko asmoz hona dakarkizuegu *Untxitxo Txuria* tituluko Portugaleko herri ipuina.

Untxitxo Txuriak ahozko tradizioaren ipuinen ezaugarri guztiak batzen ditu. *Untxitxo Txuriak* ahozko ipuinen xarma paregabea eskaintzen digu. Egitura erraza: sarrera, korapiloa eta amaiera. Animaliak protagonista: gaizkilea, inuzentea, eta laguntzailea. Gainditu beharreko arazo bat. Baina, topikoez gain, *Untxitxo Txuriak* berezko nortasuna dauka: hitzen doinuuan, erritmoan eta jolasean datzan nortasuna, hain zuzen.

Azpimarratzekoa da itzultzaileak, Koldo Izagirre, lortutako emaitza bikaina. Izagirrek era magistralean jatorrizko ipuinaren erritmoari eta musikaltasunari eusten die. Ezin hobeto ulertu du ipuinaren gakoa istorioa esateko moduan dagoela. Izagirrek proposaturiko hitz jokoak eta aliterazioak jatorrizkoarenak bezain ederrak dira. Ikus ditzagun esandakoaren adibide batzuk: "Ni akerra naiz, aker adar okerra (aker oker alperra, aker alper okerra, adar okerreko akerra), eta alde egiten ez baduzu, ikusiko duzu istilu ederra!"

Untxitxo Txuria poesiaz beteriko ipuina da, lirikaren mundurantz, umeak zein helduok, abiatuko gaituena. Istorioak *David*en eta *Goliath*en artean gertaturikoa ekarriko digu gogora, eta bere irudi ederrek, neurriz gaineko trazukoak eta hondo neutro baten gainean sortuak, ekintza indartzen dute. Horrela, inuzente agertzen zaigu, benetan, untxia. Beldurgarria, berriz, akerra.

Eta amaieran?. "Salda egin zuten, jan zuten eta niri ez zidaten eman eskatu ez nuelako".

Untxitxo Txuria, sinplea bezain ederra•

Untxitxo Txuria. Portugaleko herri ipuina. Xose Ballesteros eta Oscar Villan. Itzultzailea: Koldo Izagirre. Kalandraka Editora, 2000.



arabarrak mihiluzen etb1-eko lehiaketa

3. saiokoak: otsailak 16. gorbeia

- >izena: iker ibarrola "rolo" (lezama)
- adina: 27 urte.
- lanbidea: lantegiko langilea.
- >izena: lander meaza (amurrio)
- adina: 21 urte
- lanbidea: kutxako langilea
- >izena: ekaitz elorriaga (gasteiz)
- adina: 24 urte
- lanbidea: delineatzailea



talde honetan, hasiera batean, zigor enbeitak parte hartu behar zuen, baina saioa grabatu behar genuen egun berean -otsailaren 10ean-, jaio zen ane bere alaba. beraz, bere ordeiz lander meazak jokatu zuen. landerrekin, berez, 6. saioko arabarrekin jokatu behar zuen, baina zigor ordezkatzeko eskatuko genion grabazioaren egun berean eta baiezkua eman zigun. zigor, parte hartzeko gogoz geratu zenez, 6 saioko taldearekin etorri zen lehiatzera. berbalibreetan, txisteak kontatu zituzten. gorbeia taldea jaizkibel eta igorre izeneko taldeekin lehiatu zen eta hirugarrenak geratu ziren.

4. saiokoak: otsailak 23. gasteiz

- >izena: rafael blanco (iruñea)
- adina: 42 urte
- lanbidea: irakaslea
- >izena: nerea melgosa (gasteiz)
- adina: 35 urte
- lanbidea: administrari laguntzailea
- >izena: natxo apaolaza (gasteiz)
- adina: 39 urte
- lanbidea: funtzionarioa



lagunak hirurak. natxok osatu zuen taldea. berbalibreetan antzerkitxoa egin zuten 'maritxu nora zoaz' kantarekin. gasteiztarrek berastegi eta lasarte-oriakoekin lehiatu ziren eta hirugarren postuan geratu ziren.

6. saiokoak: martxoak 9. zuia

- >izena: andere arriolabengoa (aramaio)
- adina: 23 urte
- lanbidea: ikaslea (zuzenbidea) eta bertso-eskolako irakaslea
- >izena: zigor enbeitza (izarra)
- adina: 34 urte
- lanbidea: biltegiko langilea
- >izena: gorka iturriaga (izarra)
- adina: 33 urte
- lanbidea: irakaslea (gorputz-hezkuntzakoa)



zigor aitatxok talde honetan parte hartu zuen azkenean. berbalibreetan, txisteak kontatu eta bertso bat abestu zuten. talde hau mugarra (bizkaitarrak) eta pasai-donibaneakoekin lehiatu ziren eta hirugarren geratu ziren.

18/98 auziaren epaiketa: guardia zibilek bortxatu zutela azaldu zuen txapartegik

(berria -06/04/20)

atxilotu eta madrilerira iritsi aurretik hasi ziren torturak, txapartegik azaldu zuenez. kolpe eta mehatxuen ondoren, mendira eraman zuten. burua kaputxaz estalita, eskuak atzean eskuburdinez lotuta eta hankak prezintuz lotuta zeuzkala belauniko jarrarazi, buruan pistola jarri, eta balarik gabeko tiroa bota zioten.

madrilerira iritsi bezain laster poltsa jarri zioten buruan, eta lepoan estututa itolarria eragin. amasa hartzeko poltsa apurtzea lortzen zuenean beste bat jartzen zioten. lurrera erortzen zenean, kolpez josten zuten. etengabea izan zen hori.

besazpian eta gerrian elektrodoak jarri zizkiotela kontatu zuen. biluzteko agindu zioten beste behin, baina txapartegik uko egin zion. atzetik bi guardia zibilek heldu, eta beste bik biluzi zuten orduan. bularrak ukitzen aritu ziren. beste gela batera eraman zuten ondoren. mikel egibar zegoen han eta salatu egin zuela esateko agindu zioten. egibar nola jotzen zuten entzun zuen. alboko gelara eraman zuten jarraian, biluzi, eta bortxatu egin zuten.

auzi-medikuarengana egunero eramaten zuten arren, hark ez zuen tortura zantzurik ikusi. espetxera eraman zutenean, baina, hango medikuak beldurtu egin zirela esan zuen txapartegik. hezurren bat hautsia zuen ikusteko, plakak egiteko agindu zioten, eta torturek eraginda gorputz osoan zituen markak txostenean jaso zituen. luzaroan izan ditu torturaren ondorioak. hilerokoa urtebetez galdu zuen eta, egun, eskumuturrak, bizkarra eta sorbalda minduta dauzka.

lau deklarazio egin zituen txapartegik polizia etxean. lehenengoan, ez zuela deklaratu nahi besterik ez zuen esan. hurrengo hiruretan, gero eta delitu gehiago hartu zituen bere gain. "torturak gogortuz zihoazen. ezereztatua nengoen eta berdín zitzaidan dena". atxilotu ondoren egindako deklarazioak jasandako tortura gogorren ondorio izan zirela argudiatu, eta gezurtatu egin ditu.



nekane txapartegi



FELIX PLACER:

“Eliza berrituko da askatasuna, aniztasuna eta berdintasuna lortzen badu”

Eliza katolikoaren orainaz eta geroaz hausnarketa egin du Felix Placer apaiz eta Gasteizko Teologia Fakultateko irakasleak argitaratu berri duen liburuan. *Remodelación Pastoral, renovación eclesial a los 40 años del Vaticano II* liburuan elizak bizi duen krisia abiapuntu gisa hartu eta egoera horri irtenbidea emateko hainbat proposamen egin ditu Placerrek.

[edurne begiristain] [arg.: edorta sanz]

Eliza katolikoak bizi duen krisi sakona jorratu duzu liburuan. Zergatik dago krisian?

Lau faktorek eragiten dute krisi hori. Batetik, sekularizazioak. Sekularizazioa munduan ematen da, baina baita gazterian eta jende nagusian ere. Jendeak libre eta ezberdin pentsatzen du. Orain dela 100 urte jendea eliztiarra zen, baina une honetan ez. Beste faktore bat globalizazioa da. Horren ondorio da pobrezia, eta horri ere aurre egitea elizaren erronka da. Hirugarren faktorea giza eskubideak dira, bai munduan eta baita elizan ere. Izan ere, eliza da une honetan erakunde bakarra demokratikoa ez dena. Hori ulertezina da. Eta horri lotuta, eta laugarren faktore gisa, bakea ere erronka da: ez bakarrik elizarena, baizik eta erlijioarena oro har. Batez ere Europan. Horregatik diot une honetan elizak krisi oso handia bizi duela.

✓ ...beste arazo bat da emakumearen rola, elizan ez baitago emakume eta gizonen arteko berdintasunik. elizak berrikuntza osoa behar du: egituraren, helburuetan eta baita komunikatzeko forma eta estiloan ere

Zein da, orduan, krisi horretatik ateratzeko bidea? Zer proposatzen duzu?

Kontua da eliza katolikoa 40 urte hauetan oso kontserbatzailea izan dela; Joan Paulo II. horren adibide da. Benedikto XVI. nolakoa den ikusteko dago oraindik. Esan bezala, eliza oso kontserbatzailea da, bai egitura bai irudi aldetik oso bertikala eta hierarkikoa baita. Horren aurrean Vatikanok beste irudi bat proposatu zuen: eliza herri bezala hartzea, alegia, berdintasuna oinarri hartuta, komunikatiboa izatea. Hala ere, oraindik orain elizak oso egitura bertikala izaten jarraitzen du, batez ere Vatikanon. Hori arazo handia da. Vatikanoko Kontzilioak zenbait proposamen egin zituen, oso aurrerakoiak izan zirenak, baina oraindik ez direnak praktikara eramane. Horregatik, nire planteamendua da lehendabizi Vatikanoko Kontzilioaren proposamenak aplikatzea. Horrekin batera, beste arazo sakon bat ere badago Euskal Herrian, zehazki Euskal Autonomia Erkidegoan: memento honetan mila bat apaiz daudela, eta horien artean seirehun batek 65 urte baino gehiago ditugula. Hemendik 10 urtera, beraz, Euskal Herrian bakarrik 200 bat apaiz izango dira. Beraz, garrantzi handikoak


dira laikoak. Hala ere, elizara etortzen diren laikoak oso jende nagusia da. Beste arazo bat da emakumearen rola, elizan ez baitago emakume eta gizonen arteko berdintasunik. Hortaz, elizak berrikuntza osoa behar du: egituraren, helburuetan eta baita komunikatzeko forma eta estiloan ere.

Hori izan liteke bidea gero eta jende gazte gehiago elizara erakartzeko?

Bai. Jende gazteari, oro har, ez zaio interesatzen eliza. Zer egin hori konpontzeko? Irudia aldatu eta munduaren aldeko zerbitzua azaldu. Bai Euskal Herrian, bai mundu osoan, arazo asko baitago kontuan hartzekoak: pobrezia, bazterketa, giza eskubideak eta abar. Munduaren zerbitzura jarritz gero, jende gazte gehiago erakarriko luke.

Desberdintasunik ba al dago Euskal Herriko eta Europako elizaren artean?

Bai, aldea badago. Frantzia, Alemanian, Italian, Holandan eta Europako beste herrialde askotan sekularizazioa oso garatuta dago. Euskal Herrian orain dela 40 urte gutxi gorabehera ia jende gehiena mezatara joaten zen, fededuna zen, eta elizarekin harremana zuen. Baina egun



hori guztiz aldatuta dago. Ranking batean jarritz gero, eliza beti agertuko da azken postuan. Euskal Herrian aldaketa oso handia izan da urte gutxitan. Orain arte herri fededuna izan da, baina memento honetan ez. Nire-ustez hori positiboa da, ez da negatiboa. Izan ere, hemendik

aurrera askatasunez jokatu behar dugula erakusten du. Hau da, argi dago eliza berrituko dela soilik askatasuna, aniztasuna eta berdintasuna lortzen badu.

Euskal Herriak bizi duen egoera politiko berrian zein izan behar du elizaren egitekoa? Bake prozesuak

aurrera egin dezan nola lagundu dezake?

Kontuan izan behar da elizak Euskal Herrian oraindik prestigio bat daukala. Ildo horretan, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako apezpikuek su-etenaren inguruan esandakoa oso positiboa izan dela uste dut, itxaropenez betetako mezua eman baitute. Elizak bake prozesua bultzatzea oso inportantea da. Elkarrizketa, negoziazioa, askatasuna, edota presoen egoera kontuan izan beharreko gaiak dira bake bidean aurrera egiteko. Horrela, elizak bakearen aldeko giroa sortu beharko luke, elkarrizketaren aldeko giroa, Euskal Herriaren eskubideak defendatzearen aldekoa, autodeterminazioaren eta etorkizuna erabakitzeko eskubidearen aldekoa. Beraz, elizak badu erantzukizun handia une honetan bake prozesua bultzatzeko, horixe baita une honetan Euskal Herriko erronka handiena.

Eliza katolikoaren barruan ez bada aldaketarik egoten, zein etorkizun ikusten diozu?

Ez bada aldaketarik egoten, eliza ghetto bat bilakatuko da. Eliza eta erlijioa ez dira desagertuko, noski, baina gauza bat da ghetto bezala bizirautea, eta beste gauza bat da gizartean eragina izatea. Hor dago erronka nagusia. Elizak aukeratu behar du, beraz: ghetto izan, ala zabaldu eta gizarteari zerbitzua eman.

✓ elizak bakearen aldeko giroa sortu beharko luke, elkarrizketaren aldeko giroa, euskal herriaren eskubideak defendatzearen aldekoa, autodeterminazioaren eta etorkizuna erabakitzeko eskubidearen aldekoa

✓ elizak aukeratu behar du, beraz: ghetto izan, ala zabaldu eta gizarteari zerbitzua eman




bitxiak / zilarra / osagarriak

**Prezio ezin hobeak!
Originaltasuna!**

serafin ajuria 13-behea | gasteiz 01008 | 945222130



bidaia irudietan barna, begizta.net-en



ERREZETA

GANBAZ BETETAKO PATATAK (JANAUURREKOA)

[gamarrako ostalaritza eskola]


> OSAGAIAK:

- 6 patata
- 35 cl esnegain
- 8 ganba txiki (txerri hankak txikituta bizkaitar saltsarekin, hazikontxoak salteatuta, ganbak, ahate-paparra, foiea...)
- Oliba olio, 3 dl.
- Lehen sakaldiko oliba olio, 5 cl
- Perrexil olio berdea
- Baratzuri atal erdia
- Gatz fina

PATATAK

Patatak zuritu eta hustu barrutik, patatak ez hausten saiatuz.

Oliba oliotan egin, su eztitan, patatak estaltzeko adina olio erabiliz; su eztitan utzi, poliki-poliki egin daitezen, eta ez utzi patatei kolorea hartzen. Xurgatzeko paper baten gainean utzi, eta gatza bota.



PATATA PUREA

Patata zatiak (patata hustu denean lortutakoak) egosi esnegainarekin batera, eta gatza bota; oso su motelean utzi estalitako ontzi batean, patatak bigundu arte.

Tourmixa erabiliz birrindu eta lehen sakaldiko oliba olioarekin emulsionatu.

GANBAK

Ganbak zuritu eta su bizitan erregosi, oliba olio pixka batekin eta baratzuri zatitxoekin.

AMAIERA ETA PLATEREAN AURKEZTEA

Patatak erregositako ganbekin bete, eta betetak zati hori patata purearekin estali. Ondoren, gratinagailuan gainerre.

Perrexil olio berde pixka batekin apaindu.

Horrelako patatak betetzeko hainbat jaki erabil daitezke: pil-pilean egindako bakailaoa, ahate paparra, jabugo urdaiazpikoa... Patatak prestatzeko metodoa ere alda daiteke: labean egin, egosi...

[itzulitako testua: aztiri]

[cristina fernandez blanco]



HISTORIAZUTABEA

UDA-TREBIÑU, BAKE
PROZESUAZ HARATAGO

[erlantz urtasun]



Kaixo, irakurle. Oraingo honetan ez dizuet gure arbasoen berri eman nahi. Edo ez hori bakarrik, alajaina. Gakoa da kokoteraino nagoela, zer arraio. Izan ere, Euskal Herriko Uda-Trebiñu eskualdean honelako egoera arrunta da: Familia bereko batzuk arabarrak eta bertze batzuk burgostarrak izaita. Honen arrazoina, erraite baterako, elkarren ondoan diren herri ezberdinetan jaio izana. Ama arabarra, aita burgostarra, seme-alabak burgostarrak edo arabarrak, biloben artean denetik... Hitz batez, familiak ez dira ez arabarrak ez burgostarrak, baina Udan jaiotzen direnak Burgosen menpe dira. Bertze adibide bat; azoka Gasteiz izan da beti eta astean behin edo birritan harat joaiten ohi ziren. Denek dute senitarteren bat mugakidea den arabar hiriburuan. Horrela, eta bertako aitaxi batek aspaldi erran zidanez: "Uda, Valladolideko administrazioaren menpe dagoen Gasteizko auzo bat". Hau dela medio, ideia politikoez landa eta eguneroko bizitza hain konplexua ez izaiteko, 1919tik Udako biztanleak bertze arabarrekin bat egiten saiatu dira erreferendumen bidez.

1942an Udako konterriko %95ek Araban sartzea eskatu zuelarik ezezkoa jaso zuen. Nolabaiteko argudio historizista beren zen ezezkoa azaltzeko, eta andere ikasi baten hausnarketa erabili zuten, Burgosko Mercedes Gaibros de Ballesteros: "Uda eta Argantzun ez dira inoiz Araba izan eta Argantzun lege zaharrak Gaztelako Alfontso VIII.ak eman zituen". XII. mendeko faltsifikazioak frankismoaren bultzada jaso zuen. Edonola ere, urte batzuk beranduago, 1958. urtean kopuru berak Araban sartzearen alde bozkatu zuen.

Bertze nolabaiteko "erreferenduma" urte hauetako hauteskundeetan eman da, alkatetzek islatzen duten joera garbia lekuko. Eta berriz ere, 2007an ospatuko dugunez, Arabaren aldeko bozkek aise irabaziko dute. Ordurako jada arabarrak izanen? Hor ene gogoia.

PEDRO (GASTEIZ): "NONDIK DATOR GASTEIZ IZENA?"

Aurreko alean txertatzeko berant bazen ere, martxoaren 12an, igande, e-mail hau jaso genuen: "Kaixo, gasteiztarra naiz eta hain zuzen, Gasteiz izenari buruzko galdera egin nahi nizuke. Zenbait aburu desberdin entzun dut izen honi buruz. Zuen ustez nondik dator Gasteiz izena? Eskerrik asko eta hurrengorarte".

Lehenik eta, Pedro, gai honen inguruan adituak ez dira inoiz ados jarri. Horrela, zintzoki, ene ezjakintasuna aitortzen dizut. Dena den, aukera aprobetxatu nahi dut hainbat datu zabalatzeko, ea lagungarria zaizun. Edozein gauza erran baita "Gasteiz" izenaz, "barra libre" edo. Latina, zelta, germaniarra... Egia erran euskara gutitan aipatu da honen inguruan, hurbilena izan arren, balizko "gatz" bati lotua adibidez. Gerardo Lopez Gereñukoak antzeko hogeita hamar bat hitz eskaini zuen 1989an, eta amaiera ere, "-iz", arrunta da euskal lurraldeetan, "Eneritz" kasu. Halaber, eta "gatzelu" itxura duten tokietan, hor dugu "Gastelagana" Mendiolan, "Gastelepu" Araian edo "Gasteluçegana" Letonan.

Edonola ere, ez dezagun ahantz Euskaltzaindiaren itizia, bere web orrialdean paratutik dagoena: "Arabako hiriburua eta Andre Mariaren eliza. Gartzia, Garteza, Gartezen aldaera den Gaste(a) antroponimoaren eratorria da, jabea adierazten zuen -(t)z atzikiaren bidez. Azken honek latineko genitiboan du iturburu". Eta, jakin dezagun, Pedro, ai ene, ni aspaldi "fusilatu" ninduten gauza bera defendatzeagatik, horregatik nahiago izan dut Euskaltzaindiak erraitea eta ez nik, sobera "nafarzale" edota "ekialdezale" ez izaitzeagatik, badakizu, bertze-beste, bortz-bost, Garteitz-Gasteiz, kar kar...

[? txoko honetan, erlantz urtasun historiagileari euskal herriaren historiaren inguruko galderak zuzenean egiteko aukera duzue. bidali hura zure galdera: geugaste@grn.es]

DIOCESANAS, Lanbide Heziketa euskalduntzen

DBH, Batxilergoa eta erdi eta goi mailako Lanbide Heziketa zikloak eskaintzen dira Diocesanas-ek Gasteizen dituen eskoletan. Aurtengo eskaintzen artean, Administrazioa eta Finantzak, goi mailako zikloa, euskaraz bi urteren buruan egiteko aukera berria daukagu; bestetik, erdi-mailako Mekanizazioa eta Administrarritza kudeaketa ere euskaraz eskaintzen dira egun.

[maite lekue] [arg.: edorta sanz]

Era guztietako zikloak burutzeko aukera dago Diocesanasen, 11 familiatan banatuta dauden 26 ziklo desberdin ematen baitira.

Ane Miren Villa, Iñaki Resa eta Kike Korres irakasle dira Gasteizko Diocesanas ikastetxeetan. Lanbide Heziketa euskaraz gauzatzeko lanean ari dira eta egun dagoen eskaintzaz aritu gara haiekin solasean:

Aurten Diocesanasen lanbide heziketako Administrazio eta Finantzak ziklo berria euskaraz jarri duzue martxan. Zer moduz joan da?

Kike Korres- Aurtengoa aurrena izan da, esperientzia ona! Hala uste dugu ikasleak pozik daudelako. 11 ikasle izan ditugu aurten, banakako atentzioa izanik, eta datorren urterako gehiago lortzeko asmoa ere badugu. Lanbide Heziketarako euskaraz dagoen eskaintza urria da, eta gizartea gero eta gehiago ari da eskatzen euskaraz ikasteko aukera izatea. Gure asmoa da gero eta ziklo gehiago euskaraz eskaini ahal izatea.

Zergatik Lanbide heziketa euskalduntzeko arazoak?

Ane Miren Villa- Ikasle askok Batxilergoa zein Lanbide heziketa egiterako orduan A ereduak aukeratzen dute B eta D ereduetan ikasi badute ere. Gurasoen aldetik beldurra dago, laguntza eskaintzerik ez dutelako hizkuntza menperatzen ez dutenean.



Iñaki Resa- Gasteizen beldurra dago, gure inguruan gero eta gehiago entzuten da euskaraz, baina lanbide heziketa egiterako orduan edo ez dago edo jendea ez da animatzen.

Eskaintza zabaldua zein da hurrengo urratsa?

Iñaki Resa- Guk 4 urterako plan estrategikoa prestatu genuen eta bertan Diocesanasetan euskararen normalizazioa bultzatzen zen. Hau lortzeko helburu bat eskaintza handitzea izan zen eta egin dugu. Uste dugu beldurra kentzeko gure

ikasleen hizkuntza maila handitu beharra dagoela eta horrexegatik ekimen ugarietan parte hartzen saiatzen gara. Euskarazko ipuin lehiaketaren laugarren edizioa egingo dugu aurten eta gure ikasleek eskolatik kanpo euskara erabili dezaten ekintzak antolatzen ditugu, besteak beste, zinema eskola, idazleekin topaketak, barnetegiak eta abar.

Bai Euskarari plataformarekin konpromiso batzuk hartu eta bospasei urte daramagu horrekin lanean. Beldur hori kentzeko lortu behar duguna da gure ikasleek

euskara ondo eta gero eta gehiago erabitzea.

Zein da lanbide heziketako ikasleen jarraipena?


Ane Miren Villa- Mekanizazioa egiten dutenen %100a lanean jartzen da. Gaur egun enpresek ikasleren bat gomendatzeko deitzen digutenean, batzuetan ez dugu nor bidali izaten.

Kike Korres- Administrazioa egiten dutenen %85 gutxi gorabehera lan munduan sartzen da, eta beste batzuek aldiz unibertsitatara jotzen dute.

Iñaki Resa- Egailan-ek egiten duen inkesta baten arabera, kurtsoa igaro eta 6 hilabetera, jakin ahal dugu zein egoeratan dauden gure ikasleak eta ziklo teknikoak egiten dituzten %100a lanean dagoela ezagutzen dugu.

Eta irakasle euskaldunen egoera?

Kike Korres- Irakasleria gero eta euskaldunagoa da, zikloak muntatzeko arazorik ez dago, lana da jakina baina jendea prestaturik dago. Irakasleek



euskaraz lan egin eta aritzea. Hizkuntzak ez du inoiz arazoa izan behar Lanbide Heziketa euskaraz egiteko orduan.

Kike Korres- Lanbide heziketa euskaraz gauzatzeko beldurra duenari "etorri eta ikusi" esango nioke. Animatu direnak pozik daude gero eta atentzio pertsonalagoa eskaini diegulako, klasean gutxi izan gara eta•

motibazioa izan behar dute, materialak moldatu, itzulpenak egin eta hiztegi tekniko berrietara egokitu beharra dagoelako, baina merezi du.

Iñaki Resa- Espezialitate guztietan irakasle euskaldunak daude, aurtur lehenengoz eskaintza bat egin dugu, baina jendeak gure zikloak euskaraz eskatzen baditugu ematen saiatuko gara ikasle kopuru dezentea behar bada ere.

Lanbide Heziketa euskaraz!

Ane Miren Villa- Euskal Herrian gaudelako eta Euskal Herriak eskatzen duelako

Ateak zabalik jardunaldiak

Diocesanasetan egiten dena ezagutu nahi izanez gero maiatzaren 9, 16, 23 eta 30ean eta ekainaren 6an Heziketa Ziklo-ei buruzko jardunaldi irekiak egingo dira. Jardunaldi hauek Diocesanaseko lau kokalekuetan, 18:00etan izango dira.

Aurretiko izen-ematea

Izena emateko epea ekainaren 1tik 7ra arte izango da (biak barne).

Sarbide proba

Sarbide proba apirilaren 24tik maiatzaren 5era arte izango da.



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

GAMARRA OSTALARITZA ESKOLA,
SUKALDEAN ERE EUSKARAZ

IÑAKI ARMENTIA, IKASKETA BURUA:

“Araba eta Gipuzkoa osoan, euskarazko eskaintza duen Ostalaritzako Eskola bakarra gara”

Gasteizko Gamarrako Ostalaritza Eskolak egungo eta etorkizuneko sukaldariak prestatzen ditu orain dela 18 urte. Heziketa praktikoa eta lan mundua elkarlantz dituen eskola honek bere eskaintza euskaraz ematea lortuko du hurrengo ikasturtean. Bertara hurbildu eta Iñaki Armentiarekin izan gara, ikasketa buruarekin.

[maite lekue]

[arg.: edorta sanz Et gamarra ostalaritza eskola]

Azalduko diguzu zer den eta zer eskaintzen duen Gamarrako Ostalaritza Eskolak?

Gamarrako Ostalaritza Eskola Lanbide Heziketako Institutu Publikoa da, 1988an sortu zen, eta handik aurrera Ostalaritzako ikasketak eskaintzen ditugu: alde batetik, Goi Mailako Ziklo bat, 'Jatetxe arloan Goi Mailako Teknikaria' eta bestetik, bi Erdi Mailakoak, 'Sukaldaritzan Teknikaria' eta 'Pastelgintza eta Okintzan Teknikaria'. Denak bi ikasturteren buruan egiten dira.

Datorren ikasturtetik aurrera, ikasketak euskaraz egiteko aukera izango al da?

Bai, hala da. Zoritxarrez Lanbide Heziketan euskaraz dagoen eskaintza ez da oso zabala, adibidez Araba eta Gipuzkoa osoan, euskarazko eskaintza duen Ostalaritzako Eskola bakarra gu gara. Gamarran urteak daramagu materiala eta baliabideak prestatzen, eta aurreko Sukaldaritzako zikloa martxan jarri nahi dugu, eta aurrerantzean besteak.

Zer berezitasun dauka Gamarrako eskolan egiten duzun irakaskuntzak?

Berezitasun garrantzitsuena ikasketa praktikoek lehenetsia daukatela da. Horretarako punta-puntako instalazioak ditugu, kalitatezko hezkuntza eskaintzeko, eta badirudi kalitatezko hezkuntza ematen dugula, zeren eta Euskadi mailan lehenengo Ostalaritza eskola izan gara ISO ziurtagiria lortzen, eta berriro ere lehenak zilarrezko 'Q' ziurtagiria lortzen.

Ikasketa guztia ikastetxean gauzatzen al da?

Ez. Alde batetik, ikasle guztiek egin behar



dituzte 400 ordu inguru jatetxe, hotel edo beste enpresa batean. Normalean ikasleak bizi den inguruan egiten dituzte praktika hauek, baina atzerrian egiteko aukera ere badago. Aurten adibidez, hainbat ikasle Polonian eta Italian ditugu. Bestalde, ikastetxeak hainbat gastronomi ekitalditan parte hartzen du urtean zehar, hauetara hainbat irakasle eta ikasle joaten direlarik. Aurten esaterako, Nantesen, Bartzelonan, Madrilan, Berlinen eta Mallorcan izan gara, besteak beste.

Nori zuzenduta daude ikasketa hauek?

Ikasketa aproposak dira, eskulanak edota kreatibitate lanak gustuko dituen jendearentzat, eta baita sukaldaritzako edo ostalaritzako enpresa propioa sortu nahi duenarentzat ere. Bestalde, urte hauetan ikasleri anitza izan dugu, bai jatorri aldetik bai adin aldetik ere.

Nongotarrak dira zuen ikasleak?

Gehienbat gasteiztarak eta arabarrak, baina baditugu Gipuzkoa eta Bizkaia aldekoak ere, Arrasatekoak, Bergarakoak, Oñatikoak...

Ze lan aukerak dituzte zuen ikasleak?

Lan egin nahi duenak ez du arazorik izango, eta gainera esparru desberdinetan lan egiteko aukera izango du, esate baterako: jatetxeetan, hoteletan...(bai Euskalherrian eta baita kanpoan ere). Catering enpresetan ere lan aukerak ugaltzen doaz. Administrazio publikoan ere posible da, ospitaletan, hirugarren adinekoen egoitzetan...

Norbait interesaturik balego, nora jo dezake?

Informazioa nahi duenak gure web orrialdera jo dezake; edo zuzenean gurekin harremanetan jarri, eskolatik bertatik pasatuz, edo telefonoz deituz. Maiatzean jendeak gure eskola bisitatzeko 'ate-zabalik' jardunaldiak egingo ditugu.●

gamarrako ostalaritza eskolako eskaintza:
erdi-mailako zikloak

1. 'sukaldaritzan teknikaria'
 2. 'pastelgintzan eta okintzan teknikaria'
- goi-mailako zikloa
1. 'jateke arloan goi mailako teknikaria'

ostalaritza eskolako ekimenak:

jardunaldi gastronomikoak

maiatzaren 16tik 18ra

ate-zabalik jardunaldiak

maiatzaren 24an

matrikulak egiteko:

ekainaren 1etik 7ra


telefonoa: 943 258025

www.hosteleriagamarra.com

ZUIA (ARABA) EZAGUTUZ. BISITA GIDATUAK

'NATURA BIZIA', 3 IBILBIDE ZUIA ezagutzeko

Zuiako koadrila ekialdetik mendebaldera zabaltzen diren zenbait udalerrik osatzen dute; Aramaio, Arrazua-Ubarrundia, Legutiano, Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuia. Larre leunak, kondairaz beteriko basoak, baserriak eta dorretxeak harmonia bizian... Arabako iparraldean kokaturik, Gorbeia zein Urkiolako mendi-hegalen artean, ohiturek eta tradizioek bizirik diraute, leku anitzetan ere euskarari eusten. Hau ezagutzeko aukera duzu orain, maiatzetik urrira arte Zuiako koadrilak antolatu dituen bisita gidatuetan.



[david alvez] [arg.: zuiako koadrila]

Hamaika ibilbidek, urtegi artifizialek, ibaiek, antzinako aztarnak utzi dizkiguten kobazuloek, botanika nahiz paisaia-interesa duen landareriak, eta bere barnean bizilekua aurkitzen duten animalia ugari, beti bere edertasunagatik liluraturik irtengo zaren txoko ikusgarri honetan parte hartzen dute.

NATURAREN FRUITUA

Uribarri Ganboa nahiz Urrunaga urtegietan, non besteren artean Zadorra ibaiak bertan bere urak isuritzen dituen, aisia, kirola zein erlaxarekin zerikusia duten ekintzak areagotu egin dira. Gorbeia eta Urkiolako parke naturalen artean kokaturik, horiek, Arrazua-Ubarrundia, Legutiano eta Aramaio udalerriak

babesten dituzte, non Albinako urtegiak, Urrunaga urtegiara doan isuralde txiki bat azpimarratzen duen. Hemen ura, herri arkitektura eta jauregi dotoreen artean paseatzeko gonbidapena luzatzen digun elementu bezala azaltzen da.

>> **Oleta, Ollerietia (Elosu), Urbina eta Uribarri Ganboan**

JAUREGIEN ARTEKO BIDEAK

Gorbeia inguruan, Arabako mendizaleen ohiko biltokian, haritz, pago, zein beti berde irauten duten larreen artean, Zuia zein Zigoitiko udalerriak zabaltzen dira, zeinak antzin-antzinatik leinu garrantzitsuen sorterría izan diren. Horrela, interes artistiko zein historiko nabarmena duten aztarna erromanikoak mantentzen dituzten elizak, jauregi txikiak, dorretxeak eta errotak, beste askoren artean, eraikitzen

dira. Hor, gizakia paleolito-garaitik bizi delako aztarna ugari aurkitu da, eta erdi aroan kostalderantz zihoan behar-beharrezko pasagune bihurtu zen.

>> **Olano, Murgia, Murga, Zurbao**

URA ETA HARRIAREN ARTEAN

Urkabustaiz mendebalderantzago dagoen udalerria dugu. Gorbeia mazizoa, Urduñako harkaitz eta Kuartangoko haranaren artean kokaturik dago. Monumentu megalitikoak, trikuharriak, tumuluak eta otsoak harrapatzeko 'Lobera' izeneko antzinako tranpak (Gibijo mendilerroan) aurki ditzakegu; historiaurreko jatorria duten horiek, gizakia aitzin-antzinatik lurralde hauetan bizi izan dela argi erakusten digute.

>> **Oiardo, Goiuri, Izarra, Abezia**

Oihana Martinez, Zuiako ekonomi eta lan sustapenerako teknikaria

Noiztik antolatzen dituzue halako bisita gidatuak?

2002ko udazkenean hasi ginen, Diputazioko dirulaguntzaren zain geunden eta hau heldu zenean ekin genion antolatzeari; hortik aurrera urtero egiten ditugu, maiatzetik urrira arte.

Eta orain arteko balorazioa nolakoa da, zein da jendearengan izan duen erantzuna?

Bai Koadrilak, bai antolatzen duen enpresak oso positiboa izan dela uste dugu.

Nahiz eta zonalde hau, hiru edo lau kasu zehatz kenduta oraindik oso ezezaguna izan, indarrez ari gara jendeak ezagut dezan.

Zein helbururekin hasi zineten horrelako ekitaldiak antolatzen?

Oso zaila da foileto turistiko baten bidez Koadrilak dituen leku turistikoak ezagutzera ematea. Orduan pentsatu genuen hobe zela gidari batek zuzenenan erakustea leku interesagarri horiek; horrela bisitariak lekuan bertan beregana ditzake gure historia, kultura, gastronomia eta abar.

Nori zuzenduta daude bisita hauek?

Nahi duenarentzat daude antolatuta, hala ere, beti Gasteiztik atera garenez horrek eragina izan du eta jende gehiena Arabakoa da. Azken urteetan badago aukera Euskal Herriko edozein puntutatik ateratzeko, hori bai, aurrera eramateko gutxienez 20 lagunekoa taldea osatu behar da.

Honelako beste ekimenik antolatzen duzue urtean zehar?

Koadrila bezala ez, halere udalek azoka eta festa desberdinak antolatzen dituzte: Zaldiaren Azoka Ondategin, Zigoitia Euskaraz, Zuiako Ganadu eta Nekazari Azoka, edota Aramaioko Sagardoaren Eguna, besteak beste.

Zein da Zuiaren alde turistikoaren artean aipagarriena?


Natura dudarik gabe: hor daude Gorbeia eta Urkiola Parke Naturalak; Aramaioko bailara; hiru urtegiak: Uribarri Ganboa, Urrunaga eta Albina, edota Gujuliko urjauzia.

Nongoak dira Zuiaraino hurbiltzen diren bisitariak?

Lehen esan bezala, gehienak Arabakoak dira; gero Bizkaiaetik etorritakoak; estatutik gero eta gehiago etortzen dira, batez ere Katalunia, Madril eta Valentziatik. Azpimarratzekoa da azken urtean atzerritik izandako bisitak, batez ere Frantziakoak; hauek % 17 izan dira.

Koadrilako jendeak zer pentsatzen du turismoari buruz, ikusten du izan daitekeela zonalderako beste baliabide bat edo ez?

Denetarik dago, batzuek uste dute onerako dela, baldin eta kalitatezko eskaintza badago. Dena den, beste batzuek beren kalterako dela eta euren den zerbait inbaditzen ari direla pentsatzen dute.





ERROTA

HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

Bacalao Giraldo



- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin



ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
 Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
 Gorbeia Merkaturua - Zaldian plaza
 GASTEIZ

[arabako emakumeen asanblada]]

GASTEIZKO UDALEKO BERDINTASUN SAILEKO ZINEGOTZI ORDEZKARI ALFREDO ITURRICHA JAUNARI ETA HIRIGINTZAKO ZINEGOTZI IBARRONDO JAUNARI

“Edozein kutur eraikin bezala, espazioa berau sortzen eta interpretatzen duten botere-ildoek definitzen eta gurutzatzen dute. Gune irekiak edo debekatuak, mugimendu askatasuna edo konfinamendua, ingurune bat eta honen erabilera; guztia modu desberdinean jaso eta erabiltzen dute gizonek eta emakumeek”. (Begoña Pernas, Emakume Urbanistak taldeko kidea).

Orain dela egun batzuk, harrituta, zenbait kaletan pasabidea nola ixten zitzagun ikusi genuen. Bat-batean, Bakardade Kantoiak existitzeari utzi zion eta gaizki argizatutako korridore estu bihurtu zen; metalezko hesi garai batzuek mugatzen zuten berau, eta metalezko hesi horiek ez zuten ikusten uzten ez nora zindoazen, ez nondik zentozen, ez eta bidean zer aurki zenezakeen ere.

Aldapa mekaniko horien eraikuntzari buruzko polemika prentsaren elikagai bihurtu da, eta baita hiri honetako Alde Zaharrean bizi garenon jenio txarraren pizgarri ere. Ez gaude gu pertsona guztiek edonora joateko izan behar duten aukeraren kontra, ez eta inori munduan askatasun osoz mugitzea eragozten dioten oztopo fisikoak nahiz psikologikoak kentzearen kontra ere. Hala ere, ez dirudi proiektu honek xede hori duenik. Alde batetik, garbi gelditu da mugitzeko ahalmen gutxiago duten pertsonentzat eta haur kotxeekin ibiltzen direnentzat ez dakarrela onurarik; eta bestetik, inguru honetan bizi diren adineko pertsonen osasun-zentrora iristeko dituzte zailtasunak, eta behar handienak ere horra joateko dituzte, eta ez Montehermoso kulturgunera joateko.

Guri, emakume garen neurrian, aldapa mekanikoen proiektu honek kezka handia sortzen digu hainbat arrazoiengatik: “behin-behineko izaeraz” nola utzi den ikusita (zenbat iraungo dute obrek, bederatzi hilabete, gehiago?), toki honek beldurra eragiten

du, eta baztertzeko gogo sortzen, oso estua delako, gaizki argizatuta dagoelako eta ez duelako ikusten uzten; horregatik, emakume askok, eta baita neska-mutil askok ere, leku honetatik pasatzeari utzi diote, lehen bertatik ibiltzen baziren ere. Obra amaitzen denean espazio hori nola geldituko den jakin nahi dugu: estalitako aldapek nahiko hesi altuak jartzea eskatzen dute, eta horrek bi aldeetara sortuko diren korridore itsuen ideia bat eman diezaguke.

Zinegotzi jaun-andreok: zuek zuzentzen duzuen udal horrek Emakumeei zuzendutako indarkeriaren aurkako Udal Plana onartu zuen, eta bertan, Hezkuntza eta Prestakuntza Arloan honako iritzia eman zen: “Halaber, arlo horretan, garrantzitsu iritzi zaio hirien eta bertako ekipamenduen diseinuak emakumeenganako sexu erasoen prebentzioan izan dezakeen eraginari buruzko hausnarketa egiteari; ... hirigintzari, irisgarritasunari eta genero indarkeriari buruzko prestakuntza-jarduerak egiteko premia ikusi da...”; eta zentzu horretan, udaleko langileak gai horretan prestatzeko helburu zehatzak aurreikusi dira. Hauxe dio 4.5 helburuak: “Hiria eta bertako ekipamenduak diseinatzekoan genero ikuspegia aintzat hartzea”; eta honako jarduera hau aurreikusten da bertan: “Hiriaren diseinua eta horrek emakumeen aurkako indarkeriarekin duen lotura aztertzea, hirigintzari, irisgarritasunari, ekipamenduei eta generoari buruzko azterketa orokorrean”. Egin zen mintegi batetik eta azkenean ospatu ez zen beste batetik hainbat ondorio atera ziren, baina badirudi ez dituztela ulertu, edo ez dituztela ulertu nahi (agian horrelako jardunaldiak ez zaizkielako interesgarri iruditzen eta, beraz, ez direlako joaten, Udalak berak antolatu arren?). Lehengora itzuliz: ondorio horietan azaltzen zenez, emakumeentzako inguru arriskugarritzat jo zitezkeenak identifikatu ondoren, toki

horiek leku seguru bihurtzera zuzendu behar ziren ahaleginak: hobeto argizatuz, ikusmenik gabeko toki itxiak saihestuz... Proiektu honek aipatutako alderdi horiek ez aintzat hartzeaz gain, guztiz kontrakoa egin du: inguru zabal bat, nahikoa ikusmen zuena eta nahiko segura, zegoen tokian, emakumeei hirian gainerako biztanleen baldintza eta askatasun beretan ibiltzea eragozten dien inguru bat sortu du. Segurtasun falta erabatekoaren erdu izan daitekeen espazioa sortu du.

Azkenik, sortzen ari den hiri kontzeptuak kezkatu egiten gaitu: merkataritzaren arabera, presaren arabera... planifikatutako hiria da; kaleak egoteko leku izan beharrean, batetik bestera joateko leku bihurtu dira, parametro horien arabera elkarrekin biltzea eta egotea zaildu egin du, egin behar duzun bidea seinatzen zaizu, eta hirian zer ikusi behar duzun esaten zaizu, norberari erabakitzen utzi gabe. Bakardade Kantoia San Pedro elizaren eta Montehermoso kulturgunearen arteko pasagunea besterik ez da? Kaleen erabileraz guk dugun ikuspegia arras desberdina da: kantoi horretan bazen eskaileran eserita gitarraren laguntzaz kantatzen gelditzen zenik, edo eguzkiaz gozatzen zuenik, egonean egonez, presarik gabe. Azkenik, “emakumeen mugikortasuna plangintzako oinarritzako elementutzat duen hiri batean, ezinbestekoa da erabakiak hartzeko gunean emakumeen partaidetza artikulatuko duen elementu bat zabaltzea”. (Pilar Vega)

Azkenean gai hau nola amaituko den jakin nahi genuke, eta hiri hau guk, emakumeok, biztanleen erdiak, ditugun behar eta sentimenduak kontuan hartu gabe (eta biztanleen beste erdiarenak, ez baitzaie galdetu) planifikatzen eta diseinatzen jarraitzeko asmoa al duzuen.

Besterik gabe, adeitasunez, zuen erantzunaren zain•

[itzulitako testua: aztiri]

ARALAR,
Arabak behar duen
ezker abertzale
anitza eraikitzen



 gasteizko
aralar



GAMARRA

*Zure etorkizuneko
ateak irekiko
dituzten lanbideak
A eta D Ereduetan*



GOI MAILAKOA:

- JATETXE-ARLOA (2 ikasturte)

ERDI MAILAKOAK:

- SUKALDARITZA (2 ikasturte)
- GOZOGINTZA ETA OKINTZA
(ikasturte I eta hiruhilabeteko I)

AURREMATRIKULA EGITEKO EPEA:

Ekainaren 1etik 7ra bitarte, biak barne

Ostalaritza
eta Turismo
Eskola



Escuela
de Hostelería
y Turismo

OSTALARITZA GAMARRA BHI

C.I.R.-erako Errepidea z/g 01510 Gamarra-GASTEIZ
Tfnoa: 945 25 80 25 - 945 25 81 00
Faxa: 945 28 19 02

www.hosteleriaagamarra.com

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



Arriaga



Molinuevo



Nieves Cano



Mendizorrotza

Arriaga

Pozoa kalea, z/g.
01013 VITORIA - GASTEIZ
Tel.: 945 010 110
Fax: 945 010 119
arriaga@diocesanas.org

Molinuevo

San Ignacio kalea, 6
01001 VITORIA - GASTEIZ
Tel.: 945 010 120
Fax: 945 010 129
molinuevo@diocesanas.org

Nieves Cano

Nieves Cano kalea, 10
01006 VITORIA-GASTEIZ
Tel.: 945 010 130
Fax: 945 010 139
nieves.cano@diocesanas.org

Mendizorrotza

G^a. Salazar Plaza, z/g.
01007 VITORIA-GASTEIZ
Tel.: 945 010 140
Fax: 945 010 149
mendizorrotza@diocesanas.org

Diocesanasen Hezkuntz-Eskaintza 2006 - 2007 ikasturtea

	Derrigorrezko Hezkuntza		Derrigorrezkoaren ondoko Hezkuntza		
	D.B.H.	LANBIDE HASTAPENA	BATXILERGOA	ERDI MAILAKO L.H.ko HEZIKETA ZIKLOAK	GOI MAILAKO L.H.ko HEZIKETA ZIKLOAK
ARRIAGA	A, B eta D eredueta	Soldadurako Langilea	Teknologia Batxilergoa (A eta D eredueta) Natur eta Osasun Zientzen Batxilergoa (A eta D eredueta)	• Makineria eta Linea-eroanbideen Instalazio eta Mantenimendu Elektromekanika • Ibilgailuen Elektromekanika	• Informatika Aplikazioen Garapena E-G • Informatika Sistemen Administrazioa • Produktu Elektronikoen Garapena • Automozioa • Industri Ekipoen Mantenimendua • Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak (Elektronika) • Telekomunikabide eta Informatika Sistemak
MOLINUEVO		Merkataritza Laguntzailea	Giza eta Gizarte Zientzen Batxilergoa (A eta D eredueta)	• Administrazio Kudeaketa E-G • Ile-Apalketa • Erizaintzaren Laguntza G	• Administrazio eta Finantzak E-G • Garraioaren Kudeaketa • Merkataritza Kudeaketa eta Marketina G • Estetika • Gizarte Integrazioa
NIEVES CANO	A, B eta D eredueta	Metal-arotzeriako langilea	Teknologia Batxilergoa (A eta D) Natur eta Osasun Zientzen Batxilergoa (A eta D)	• Mekanizazioa E-G • Informatika Sistemen Ustiapena	• Mekanizazio Bidezko Produktzioa E-G • Proiektu Mekanikoen Garapena • Diagnosi Klinikoen Laborategia
MENDIZORROTZA				• Jatetxe eta Tabernako Zerbitzuak • Sukaldaritza • Pastelgintza eta Okintza	G Gaezkoa E-G Egunezkoa eta gaezkoa • A eta D eredueta eskaintzen diren Zikloak

- L.H.ko DIOCESIAR OBRAren Ikastetxea
- Lanbide Heziketa osoko Ikastetxea
- HEZKUNTZA SAILAren hitzartutako Ikastetxea
- JUSTIZIA ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILAren babespeko Ikastetxea.
- ARABAKO LHko PARTZUERGOKO kide
- HOBETUZ eta INEMek homologaturiko Ikastetxea
- LANGAIren Ikastetxe laguntzailea
- HETELera eta Kristau Eskolara elkartutako Ikastetxea
- CAJA VITAL KUTXAren Gizarte Ekintzaren baitakoa